

LUTXO EGIA

Ezker hanka falta zuen



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2005 Lutxo Egia

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2005eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Frates:
Té pasa té?*

Ez genuen uste inoiz hilkutxa batean ikusiko genuenik Gerena. Egur merkea zen, karratu samarra. Eta usain asko zerizkion. Ematen zuen beste hildako batzuek erabilia zutela lehenago. Ordu hartan katu ezkel bat zebilen usnan Sestaoko beilatokiaren inguruan, zer harrapa, zerraldoan hamabi korrokoi baleude bezala.

Gangrenaturik balego bezala.

El Correo Español-en (Ezkerraldeko edizioan) obituario laburra jarri zuten, erretratubakoa: *Iñaki Gerena Narbaiza (1949-2005)*. «Hierro» egunkariko kazetaria 1971tik 1982ra. Sestao River eta Ezkerraldeko beste futbol talde batzuen kronikagilea... Bere heriotzak hutsune handia utzi du Bizkaiko kazetaritzan. Goian bego. Hil-oharra ere bai. Kirol-zuzendari berriaren keinu polita.

Lolo emaztearekin azaldu zen hilerrira, ume txoa gurasoekin utzita. Garazik elkarrekin joateko hots egin zidan, trenez, antzina bezalaxe, *hala gustatuko zitzaiokeen*. Duda egin nuen garrarioaz ala nitaz ari ote zen. Gerenaren egoera-

ren berri emateko deitu aurretik hilabete batzuk joan ziren elkar ikusi gabe, zakurraren salara bidali ninduenetik hain zuzen, ze horrela esan zidan, *zakurraren salara joan eta ez hadi inoiz bueltatu!*

Eguerdi aldera gizon bi jaitsi ziren auto beltz batetik eta zerraldoarekin laguntzera gonbidatu gintuzten. Presaka zebiltzan. Koipezto batek gorbata erantzi zuen bero-sapagatik. Hamar urrats ibiltzerako izerdi-patsetan geunden denok. Eguzkiak gogor jotzen zuen. Gizonetako batek, nagusia zirudienak, beste inor espero genuen galdetu zigun. Elkarri begiratu eta sorbaldak eta bekainak goratu genituen mutilok.

- Ez! -Garazik erabaki zuen auzia, bat-batean sumindurik.

Uste dut denoi Boli etorri zitzaigula burura. Baina azken batean hark bere moduan adierazi zion Gerenari beti arte hil aurretik. Ez zen beste inor agertu. Hormetako sugandilak genituen erostari bakar, eguzkiak eutsi arte behinik behin. Arin ibili ezik, kanposantua bera gangrenatuko zitzaigun eta korrokoiak bizkortu.

Une hartantxe, Garazik paper bat poltsikotik
atera eta Gerenaren kopia bat irakurri zuen:

Gizajendea hauts bihurtzen da
Burdinak dirau
Gizajendea hauts bihurtzen da
Burdinak dirau
Egunkarietako heroi goresgarriak
Behin eta berriz hiltzen nau

Segituan, La Navaleko azken bukearen iltze
guztiak aterarazi zituen oihu beldurgarria egin
zuen:

- Aupa River!

Izu-ikaratan begiratu zidaten Lolok eta emaz-
teak.

Baina ordurako itsasadarrera aldendua zitzai-
dan gogo.

ASTEAZKENA

Kanposantura sasi eta txilar zurien artetik ailegatzen da. Garoak eta belarrak zarratzen dute bidea, hiltzea karga da hemen. Aitaren egin dut birritan sartu baino lehen, Semea behar den to-kira eroan ote dudan. Masusta usaina dago. Harritzar borobilak nonahi. Hargin mordoa omen zitu-
tuen garai batean Galiziako herri honek. Hil-harri asko apurtuta daude. Fulgueiro, Bouzas, Vilar eta Ulloatarren panteoietako marmolak agintzen du hesiaren barrualdean. Zeresanik gabeko deitura harroak. Hilobi batean inskripzio amaigabea dago: *Aos mártires da liberdade mortos o 26 de abril de 1846. Liga Gallega na Coruña*. Bila segitu dut, lantzean-lantzean horma-hobiegi begira. Ez da hura topatu nahiko nukeen inskripzioa. Jakingo banu, gainera, nireak zer dioen! Lehenbiziko bi hitzak soilik dakizkit: *Que vida*. Horiexek eta erronka egin nahi didaten eten-puntuak!

Elizaren inguruan lur azpiko hilobiak bereiz daitezke oraindino, gehienak gainean badaude ere, luze, zeruari begira, batez ere panteoiak.

Beste epitafio bat: *Descanse em paz. Á memoria de Xosé Tosar coa gratitude do noso pobo pola sua exemplar entrega e sacrificio.* Aukeran lu-
zeegia. Eta ulergaitza. Baina ez, inondik ere, aur-
kitu behar dudana. Nirea zein hizkuntzatan min-
tzo den ere ez dakit. Toki honetan iratze gorriak
ere bazkatzen dira galegoz. Haize zirimola ume-
lek ez dute berbeta makurrarazterik lortu.

- Hi ez haiz hemengoa, Gerena -xuxurlatu
dut nire artean, Coruñako Liga Galegoaren mar-
tirrek eta Xose Tosar eskuzabalak entzuteko bel-
durrez.

Herria ikusten da hilerritik. Zein den kanpo-
santuago, berdin dio. Apur bat urrunago, Gere-
naren lehengusuaren etxea. Bugainbilea moreak
aurrealde erdia jaten dio, bizar ederra. Aldamen
batean, desagerrarazitako huntz bat fosildu egin
da paretan, beste bugainbilea bat agian. Grisak
dira hormak, pintura pixka baten beharrean, fo-
silaren baimenez. Ondoko herrietan gorrikarak,
berdeak eta horiak ere badaude, indianoen
seme-alabak turismoaren molde berrietara ema-
nak. Honetan, ordea, ez da palmondorik ikusten.
Seinale on. Harri zapal eta zabaletako estratak

daude. Eta harrizko iturri maskordun harrigarri bat. Teilaren ordez pizarra teilatuetan. Eta Gerenaren lehengusuarenean, limoiondo franko.

Taberna ilun batean topo egin dut Gerenaren senide bakarrarekin ordu batzuk lehenago. Telebistan Shin Chan, builatsu. Harritu egin du bisitak, ez dut aurretiaz abisatu. Baina abisatu nahi izan banu, ezingo nuen. Herri honetan bizi dela baino ez nekien. Azalpenak, dena den, geroko utzi ditut. Bakarrik argitu dut zer dela-eta etorri naizen.

- Sestaoko lehengusuagatik, bistan da. Baina idazteko asmoa ere badut.

Ez zait egokia iruditu inskripzio, epitafio, esaldi soil edo antzeko zerbaiten xerka nabilela horren goiz aireratzea. Hura baita Gerenak lagatako ondasun bakarra. Berba bi eta puntu suspentsiboak. Gezur ttipiari, bada, barkagarri iritzi diot.

Telebistari zeharka begira eta Celta larrutzen dabilta bezeroak edanean, taberna-zuloan apopilo. Orduak salatzen ditu. Hirurogeita hamarre-

tik hurbil daude bi; beste biak, mende erdiaren bueltan. Gerenaren lehengusua da gazteena, zahar hala eta guztiz.

Ohartu naiz, ni sartu orduko Shin Chan galegoak ikus-entzuleak galdu dituela.

- Idaztera? Manuel Rivas bezala orduan.

Une horretan aitortu dute noizbehinka bisitatzen duela herria.

Ez diet hasiera batean sinetsi. Esan gura dut ez diedala lehenengoan konprenitu, geroago ez diet sinetsi. Batera mintzatu dira, batzuk galegoz eta besteak espainolez, harik eta Gerenaren lehengusuak erabaki duen arte:

- Bai, Coruñako idazle handia.

Ahaztuta nuen galegoa. Garazi ekarri dit akordura, dardarizo lazgarria.

Handik lasterrera tabernatik irten eta hots egin diot lagun bati.

- Manuel Rivasen telefono-zenbakia behar diat.

- Idazlearena?

- Bai, ondo aditu duk.

- Eta zertarako nahi duk?

Tabernatik kanposanturatu egin naiz. Ez da tximeleten aroa oraindik, baina bat baino gehiago ikusten da. Harrigarria. Nonbait irakurri dut gero eta gehiago daudela edonon.

- Licenidoak -aurreratu da Bento Figueira, basoerdia barra gainean uzteaz bat. Hazi egiten ditu basoan salmentarako. Ugaldu dira ezkontzetan arrozaren kaltetan, askatu egiten dituzte zoria ekarriko dutelakoan.

Hala ere, larregi.

- Zuk zergatik uste duzu aukeratu zuela Riva-sek gure herria?

- Aukeratu?

Atzera ere ahantzia nuen. Hausnarrean ari naizelako plantak egin ditut.

- Tximeletengatik?

Ateraldi txatxua, bistan da, Shin Chan baino dibertigarriagoa omen naiz.

- Eta non geratu behar duzu? Bihar Aste Santua hasiko da.

Bihar hasiko da.

Eta ez dago ostaturik herri honetan, susmoak banituen ailegatu aurretik. Berrogeita hamahiru lagun daude erroldaturik, auzoetakoak barne. Gerenaren lehengusuak, Xenarok, harrotasun pittin batez xuxurlatu du, eutsi egin diote azken hamarkadetan.

- Rivas etortzen delako omen da.
- Herri ilustratua egin zarete hari esker.

Gizonak barre egin dio bigarren ateraldi zozolari, hagin gabea da. Haren etxera behartu nau segidan, ba omen daukagu bata besteari zer kontatua. Mesfidantzaz baino areago, beldurrez eskertu diot.

Aise aurkitu dut Xenaro Mouro Gueren, uste baino aiseago. Gerena baino zaharragoa da, eta den baino zaharragoa dirudi. Zimeldurik. Batek jakin Manuel Rivasen belenekoa den. Tabernatik irtetean ibilmoldeari erreparatu diot. Herrenka dabil, eskuin hanka du oker, kasik bihotzekoak eman dit. Ezusteko galanta izan da. Dena den, pausoan nabarmentzen zaio harrotasuna. Horretan badu antza lehengusuarekin. Aldeak ere baditu, gehienak. Mozkote ardo-kolorea ez da ber-

betan iaioa. Deus ez Iñaki Gerena Narbaizarekin konparaturik.

- Gueren deitura ez da Galiziakoa.

Banekien bertaratu baino lehenago. Sestaoarraren azalpenak nahiko ez bazitzaizkidan, Xenarok argitu dit, zurtuko ninduelakoan. Ze huraxe baita lehengusu biena. Gueren. Gerena, Iñakik berak moldatu zuen, Gerenabarrena bazela jakin ostean. Eta agirietan Gueren agertzen zen arren, inork gutxik zekien abizenaren kontua.

Etixerako bidean, iruditu zait Xenaro zain dudala Rivasi buruz noiz galdetuko, zer dela-eta bisitatzen duen herria. Badaki lehen aho-zabalik geratu naizena, eta zelan ez geratu, baina ez daki zein den benetako arrazoia. Lehenago egona naiz finisterre honetan, Ortigueiran, O Groven, Tuin, Lalinen, Fozen, eta zin egingo nuke inork ez zuela idazlearen berri. Eta hemen, ordea, Celta bezain famatu eta estimatua omen da. Harrigarria eman badezake ere, neuk ere ez nekien deusik haren gainean Garaziri *Las llamas perdidas* ipuin bilduma sinatu arte. Lolo lagunari esker irakurri nuen lehen liburua, *¿Qué me quieres, amor?* Geroago *El lápiz del carpinte-*

ro. Eta ondoren *Las Ilamadas perdidas*, baina ez Garazirena, harena Cataniatik bueltatu eta gutxira galdu baitzen.

Konta diezadan erregutu diot, sinesten has-teak bultzatu egin nau. Erantzuna, aldiz, nahikoa hotz.

- Hauxe duzu ipuinaren herria.

Ez dut ulertu.

- *A lingua das bolboretas*.

Begira geratu natzaio hitzik ahoratu gabe, izu-ikaratan begiratu ere. Bolboreta zer den batek jakin, baina *A lingua das bolboretas*... Pin-pilinpauxen mihia, argiegia da. Esan badut esan dut, licenido mordoa herri honetan garaia baino lehenago. Orain neu nago zain, erreguka, noiz zer argituko.

Xenaro irriz lehertu da.

- Hemen gertatu zen dena. Edo, hobeto esanda, ez zen gertatu. Ez-gertaera baten herria duzu gurea.

Manuel Rivasek *Las Ilamadas perdidas* sinatu zion Garaziri San Alejandro egun trumoitsuan,

Bilboko azokako berbaldian. Dar-dar batean hurreratu zion. Hasi aurretik erosi zuen, Verdes liburu-dendan. Gauerdian Cataniara deitu zidan, hanka-puntetan zebilen batera eta bestera egongelan barna, zoriontsu.

- Txolinduta hago?

Ahotsa Unamuno plazako alkohol-zaleena bezain marrantaturik heldu zitzaidan. Zapata beltz irristagarriak eta gona labur elastikoa zeramatzan soinean. Horrela beztitzen zen Boulervardeko dantzaldietarako. Kafetegi zaharrak Buenos Aireseko kalezuloetako erritmoetara xurgatzen zuen ostiral arratsaldeetan. Zortziak inguruan lo-tzen zen tango-kidearekin, katu itxurako reiki terapeuta. Erotuta zeuzkaten aldian-aldian eskolak ematera azaltzen ziren irakasle porteñoak.

Hariaren bestaldetik, Garaziren ahots erlastua baino garbiago heldu zitzaidan Astor Piazzolaren bandoneon alegera. Bilboko Plisetskaya dantzan ari zen oin ttipiak egurrean pausatu gabe, hegan hara eta hona.

- Bihar egingo dinagu berba -desenkusatu nintzen.

Nire berriak berantesten zituen, zelan zihoazkidan aferak Sizilian. Zelangoa zen, behinik behin.

Hiria.

- Badakin? Gerra Handiaren amaieran bonbardatzea deliberatu zitenan amerikarrek.

Zorioneko Mundu Gerraz zigortu nuen. Baina egia ere bazen. Jauregietako barroismoen alboan makina bat etxe barren husturik zeuden. Arnasa hartu ezinean, herio-larrian. Izoztuak ziruditen, Findus izoztuak.

Une hartantxe ateko txirrina jo zuten. Hoteleko zerbitzaria zen, aurpegi beteko gaztea, aldean Krug Grande Cuvée botila zekarrela.

- Nor da?

Apur batean itxoiteko erregutu nion Garaziri, dantza engelarekin segitzeko desio. Igel itxura aitortzen zion jaka berdea janzten zuen gizonak. Eskupekorik eman gabe agurtu eta bigarrenez eskusatu nintzen.

- Mankata nagon, Garazi, bihar egingo dinat aupada bat.

Gau hartan ez nintzen idazle galegoarekin arduratu. Rivas edo Marias edo Trias ulertu nuen

ere auskalo, nori inporta hura? Xanpain botila izotz pusken artean ipini eta, berandu baino lehen, kaleratu egin nintzen. Cataniako plazak orroka ari ziren, basakatu bihurturik. Bezatzeko aukera bakarra nuen.

PORTUKO ZIKOINAK

1982an ezker hanka falta zuen Gerenak.

Lolo, Garazi eta hiruroi ziren eta ezbehar saminena zetozkigun burura: SS matrikuladun auto beltz batek jo ote zuen; Sopelako itsas laborretan amildu ote zen; lehergailu bat -artean ez genekien berba hura- zartatu ote zitzaion; zauria zoldu ote zitzaion; zerrategi batean atera ote zen odola burrustan; baserritar zoro baten aizkora paristarra ezagutu ote zuen; edo portuko garabietako kontrapisuak kolpatu ote zuen.

Haren misterioarekin maitemindu ginen eta, une batez, denok desiratu genuen mainguak izatea.

Geroago, jakin genuen diabetesak -artean ez genekien berba hura- eroan ziola zangoa eta, une batez, arineketan hasteko gogoia sartu zitzaigun hiruroi.

- Gerena! Gerena! -oihu batean-. Herrena!

Ezker hanka falta zuen.

- Nora doaz mainguen bernak?

Silver piratarena, kasu.

Hondar biologikoen kaxa zuen helbide zoritarreko hark, soto ilun batean. Erizain batek salbatu zuen, ordea.

Pirataren altxorra.

Gallartako meategi zahar batean eman zion Gerenak lur, eskoria eta piritaren artean. Mende bat lehenago Benigno Canal *Negro*-k bi asaltotan akabatu zuen Mr. Wolles *El Inglés*, Explosivos Río Tintoko ingeniari mustatxaduna. *Sevillano* ere esaten zioten. Meategia Lord Roger Wilsonena zen, Limingtongo deabru zuria. Hark bota zion erronka Luciano Echevarria hasi berriari, *Wollesek baietz!* Meategia ikuskizun hutsaren truke, ingeniari apaina kinka larrian zegoen, goitzenak zama itzela zitzaizkion. Aberri beste asalto bibotedunak, Canal garaiezinak altzairuzko ukabilak goratu zituen. Ez zen ez hango ez hemengo. Wilsonen tu egin zuen.

- Baina non demonio dago hanka, Silver?

- Zuen azpian.

Behinola legez burdina ateratzean, gure zapata lokaztutakoen alboko hil harria mintzo zi-

tzaigun jabeaz. Seinale hartaraino ailegatzen ziren Sestao, Barakaldo, Erandio eta Bilbo.

Gerenak aldarri egin zuen:

- Meatzaldea da lehorreko Abra!

Antza denez, itsasotik barik, lur-azpitik sartu ziren Bizkaira ingelesak.

- **Haize** galegoak ez ditu zikoinak barkatu -gazitatu zigun Gerenak.

Uher zeuden portuko garabi erraldoiak. *Cock* gizonak Sestaoko aldapetan gora galtzen ziren, bular pozoituak Gurutzetako ospitalera. Beldurgarria zen Galiziako ufada, krudela bere hezean. Portua birrindu behar zuen. Garabiak lurrera bota. Ze *Coke* haurrok ez genuen zertan jakin Andra Mari elizako ur bedeinkatuak zipriztinduko zuela azken branka, titanizatu zaigun hiria bezain gardena, tiranizatu diren zikoinak bezain hotza, dagoeneko ez baititugu ezagutzen, eta goiz batean jaikitzerako gure baitan galdetuko dugu inoiz garabirik egon den, zerk geldiarazten gaituen hemen.

- Haize galegoak ez ditu zikoinak barkatu. Eta hobe uherra distira baino.

Sestaora baino lehen, Abrara eraman gintuen Gerenak.

Areetatik Portugaleterako bataioa ezinbesteko omen genuen. Han betikotzen ziren itsasadarreko urak.

Puente Colganteko ontzitzarrera heldu baino lehenago burrunba espantagarria entzun genuen, zeru beltzak bat egin nahi zuen itsasgorarekin. Zarra-zarra botatzen hasi zen berehala. Ur tanta lodiak masailetan behera labaintzen zitzaizkigun eta denok ekin genion korrika egiteari, Gerenak barne. Arraun baten moduan mugitzen zuen hanka ortopedikoa, airean zirkulu perfektuak marraztuz. Argala izateak laguntzen zion. Zubiko kabinara ailegatzean biraoka hasi ginen, eta barreka. Blai eginda geunden.

- Horrela geratuko gara laster denok hemen, baina konturatu gabe. Zirimiria gaiztoagoa da.

Alde batetik besterako bidaia mugituaz ere ez ginen gehiegi ohartu. Paisaiaz ez, behinik behin. Beste bidaiariak so genituelarik, Gerenak orri bat atera eta koplak irakurri zizkigun:

Erranen dizut ez nauzula
Erlojugile baten semea
Erranen dizut ez nauzula
Erlojugile baten semea
Aurrera-atzerarik gabekoa da
Nire bizitza xumea

Eguerdiko eguzkitara irten da
Bakarti muskerra
Eguerdiko eguzkitara irten da
Bakarti muskerra
Mendean ez dabilenari
Esaten diote alferra

Goiz honi ostu diote
Ordu erdi edo
Goiz honi ostu diote
Ordu erdi edo
Gauak eroan du isilean
Hotzari emateko bero

Gizajendea hauts bihurtzen da
Burdinak dirau

Gizajendea hauts bihurtzen da
Burdinak dirau
Egunkarietako heroi goresgarriak
Behin eta berriz hiltzen nau

Kantauriko erraietatik irtengo da
Hildakoaren aiherra
Kantauriko erraietatik irtengo da
Hildakoaren aiherra
Nola hain gorpu ezdeusak eman dezake
Horren gomuta ankerra

Hanka bakarraren gainean irakurri zuen
azken bertsoa, bera ere zikoina.

Gu, mutu.

Portura ailegatzerako ateri zegoen. Azaletan
oilobustia sumatu genuen, blai geunden barnetik
ere. Gaindituta ei geneukan Abra hamaika sines-
gaberen begirada harrितuen pean.

Ze horrelakoxeak dakartzate-eta bataioek:
ura eta lekukoak.

Gerenaren logelatik langileen fede aldatzea bezain ikusezina zen industriaren finitzea. Abuztuan sartutako udazkena nola, hala zeutzan beharginak. Guk jakin gabe. Gizartea ulertzeko moduak dike lehorrean uhertzen ziren. Gelako pertsiana, egurrezkoa berau, haren ihesi zebilen; ez, ordea, pipietatik eta usteltzetik libro. Baziren aste batzuk izorratuta zegoela, Astilleros Españoles bezalaxe. Norvegiar bizi izan balitz berdin zitzaiokeen, baina Sestaon altzairuaren zurruntzea eguzki galdatan erabakitzen zen.

Gerenaren apartamentura sartu ginen lehen aldian *Celtas* tabako beltzaren usain nardagarria zerion. Urrinei erreparatuta azal zitekeen harenean gertatzen zen guztia: arropa garbitzen bazuen, detergente usaina egoten zen; oilaskoa prestatzen bazuen, erre-usaina; itoginik bazegoen, sudur-mintzak zulatzen zituen hezetasuna; eta lagunekin musean arituz gero, hats izugarria.

Eta lehen aldi hartan tabako beltzaren usain nazkagarria zerion, erre eta erre ibili zelako aurreko gauean.

Leihoak itxita zeuden.

Eta ez zekien zabalduko zituen.

- Zabaltzekotan pobre usaina sartzen zait, ze hori baita hemen bizi garenok dugun ondare bakarra: eskasia usaina.

Eta segituan argitu zigun pobre usaina ez zela okaztagarria berez, baizik eta pobreek usaina bakarrik izatea amankomunean.

- Hori eta goranahia kosta ahala kosta!

- Distira nahia! -aurreratu zitzaigun Garazi, portuko zikoinen uherrari imintzio garbia.

Ezin ederrago zegoen loredun atorra soinean. Ordurako sortua zen Lolo eta bion artean elkar zelatatzeko premia.

Beharrik.

Zorionez, iluntze hartan, olagarroaren pipe-rrautsak ekarri zuen usain sarkor goxoa. Gere-nak ez zuen nabaritzen, horren zegoen ohituta. Ze usainak, azentuak bezalaxe, kanpotarrentzat besterik ez baitira. Eta hark tentel usaina bakarrik asmatzen zuen.

Leihoak zabaltzen zituenero.

Ez baitzen ohitzen.

Osteguna zen eta itsasbeherak kiratsa hedatu zuen Gerenaren bizitzara. Garabi baten olagarroak txatarra mordoa jausten utzi zuen *Ankara* ontziko herdoil-metaren gainean. Gerenak ezkereskuin mugitu zuen burua. Azken urteetan oro zen txatarra herdoila oxidoa Ibaizabaleko alboetan.

Hiltzen ari zen duda barik.

Itsasadarra.

Erandioko tailer txikiena bezain literatura errealista zen Bilboko ontzitegiarena, ispilu arrakalatu. *Euskalduna ez itxi* eta kalatxoriak agudo barrurantz. Harrezkero, txatarraren blaustadak, antxeten karrakak, gabarren turutak eta Poliziarren pilotak orkestra bereko haize eta perkusioa ziren.

Komunera eroan eta apartamentu txikerreko metro karraturik gaiztoenaren aurrean paratu gintuen Gerenak. Ispilu aurrean.

- Zer ikusten duzue?

Nahasbidean nahi gintuen, argi genuen metafora. Gure atzeko leihoa zabalik zegoen erantzunari: Ibaizabal bera zen pitzadura.

- Itsasadarra!

Baina han ez zen ibaia ageri, eta hasperen egiteaz bat belarrondoko bana oparitu zigun.

Ispilua handia zen komuneko neurrirako. Handia eta lohia, asteak ziren Gerenak ez zuela trapu busti batez garbitzen. Geure burua nekez ikusten ahal genuen. Hori horrela izanda, zelan ikusi behar genuen Gerenak proposatutakoa? Haren eta Garaziren buruak erdian zeuden. Lolo ezkerrean eta ni eskuinean. Gurutze okerra, ezker-eskuineko langak gorago eta artezago behar zuen.

Elkarri begiratu genion soa ispilutik aldendu gabe.

Lolorekin arduraturik nengoen begi-bazterrez. Eta hura Garazirekin. Eta Garazi Gerenarekin.

- Apartamentu hau Europa bezalakoa da. Ardoa zurrutatzeko metro karratua Bordele da; dotore janzteko metro karratua, Milano; dutxaren ur izoztuak akabatzen zaituen metro karratua, Oslo... Eta goizero itxura penagarria erakusten dizun ispilua...

- Bilbao! -batera Lolok eta biok.

Garazi, besoa besoaren gainean, Gerenaren buruan sartzen ahalegindu zen. Gizona isilik zegoen, eskuak barrutik kanpora mugitzen zituelarik onartzen zigula ulertarazi nahian edo.

Segituan herri bat aukeratzeko eskatu zigun. Lolok Suedia aukeratu zuen, neskarik ederrenak baitzituen; neronek, Errusia, ze hala aldi berean Amerikan, Asian eta European egon nintekeen; eta Garazik, Turkia, ze Bosforoko uretan nahasten ziren kulturak.

Protestatu egin genuen, berehala.

- Turkia ez dun Europa!

- Eta zer da Turkia? -galdetu zuen Gerenak, zer galdetzailea zuzenarazi gabe.

Lepoak mugitu barik, gure atzeko *Ankara* fedegabe hari begiratu genion malmuzki. Txatarra metatzearen metatzeaz itsas mamu herdoildua zen. Geroko ederra hark guri.

- Turkia aulkirik gabeko ipurditzarra da!

OSTEGUNA

Bustita daude bidexkako belarrak. Zerua beltz ageri da, euri zirina ekarri du. Badu ederretik. Andrazko zahar batek lagundu digu errekaraino. Denborak lekutu egin ditu bertokoak. Hilek gaina hartu diete biziei, gordeleku bezainbat galego dago herri honetan. Harrizko zubirainoko tartea hitz eta pitz eman dugu. Atsoari tutik ere ulertu ez arren, banabil belarria galegora moldatzen.

Rivas dugu solasgai. Atzo idazle galegoak Garaziri *Las Ilamadas perdidas* sinatu zionekoa kontatu nion Xenarori. Zer idatzi zion dedikatorian, ordea, ez dut gomutan. Irri-karkailetan hasi zaizkit biak, konfiantza gora doa.

- Manoloren ipuin bana zakiagu guk.

Gora, bai, Manuel Manolo da.

Xenaro harrizko zubi hondatuaren parean gelditu da hatsanka. Ur-latsaren gur-gur hotsa entzuten da gure azpian. Atsoa, mendea hankaperatu duelako itxura duen arren, zalu dabil, sa-soiko. *Que vida...* hitzek zer edo zer dakarkioten gogora itaundu ez itaundu egon naiz une batez.

Puntu suspentsiboen xerka herriratzea gura zuen Gerenak, testamentua gonbit eta mapa bihurturik. Atzo arratsaldean, Garazirena aipatu ostean, esaldiaz zirikatu nuen Xenaro, bakarrik gelditu ginen une batean. Aurretiaz azaldu nion kontua, nondik nora zetorren hura guzti hura. Ez zegoen zurtuegi, erraz ulertu zuen tabernan gorde nahia. Jakin eta berehala bueltatuko nintzen Bilbora.

- Ez nagok hemen deus idazteko. Esaldiaren misterioa argitu eta ospa.

Xenarok hurrengo egunerako uzteko proposatu zidan.

Eta itsasorik gabeko egunsentia ekarri dit lehen goizak. Gaur Kristo atxilotu behar dute non edo non. Jakin-min hutsak behartu nau egurrezko leihora, ez da ezer mudatu atzotik. Ikusten dira Pindoko basoaren carballoak eta lapurren bidea. Euri-giroa dago, lanbro aspergarria, baina ez da hemendik haize kolperik sumatzen. Ezkaratzera jaistean goiko solairuko egurrak kirrinka-karranka asmatu ditut. Xenaro hau dorpe samar dabil, lehengusua ez bezala. Ezkaratzeko erlojuak tik, haren zapata ortopediko beltzak tok.

Atera garenean zain genuen andre zimurtsua, zeru koloreko arropa maiztua daroa, eta abarkak. Galegoz mintzo da, nire zapatatetik begi zoliak altxatu gabe. Irri gaiztoa antzeman diot. Badaki lohituko zaizkidala Sebago berriak. Kaleratu baino lehen eman dit haren berri Xenarok. Baso ondoan bizi da katu nabar batekin. Animalia Siametik ekarri zion behinola marinel batek, Tomas Olason-ek. Reykjavikekoa da eta hirurehun urte baino gehiago ditu. Herrian agertu zen *Marinero en Tierra*-ko poemak errezitatzeko. Urtero etortzen da baina nekez ikusten dute.

Xenarok Galiñeiroko zubia erakutsi du, erro-matarren garaikoa. Estimatu diot gonbita.

- Guri Manolok ez ziguk libururik izenpetu, baina bere marka utzi dik hemen -erantsi zuen atzo nire esaldiarena atzeratzeko eskatu ondoren.

Garbiago mintzatzeko erregutu eta hura biharamunean ere argituko zidala erabaki zuen. Belu zen. Ordurako nekatuta nengoen, baina dena atzeratu beharrak kirioak dantzan jartzen zizkidan.

Enbata baten gaiztoenean balego bezala jait-
tsi da gaur egurrezko eskailetan behera Xena-
ro. Tok tok tok bere zapata ortopediko beltza.
Hatsa dago, batek daki zer ustel nazkagarri bat.
Bart ere erreparatu nion. Harraskatik dator eta
areagotu egiten da kanilatik ura ateratzen den
bakoitzean. Hodiren bat apurtuta omen dago
kanpoan. Itzulingururik gabe erantzun dio atzoko
lehen galderari, berba misteriotsuak.

- Ez zakiat deus horretaz. Lehengusua ez diat
inoiz ikusi. Banekian senidea nuela Bilbon, baina
besterik ez.

- Esan gura duk...

- Esan gura diat ez dela inoiz hemen izan,
hori segurua duk.

- Eta bi hitz horiek? *Que vida...*

- Ideiarik ere ez zeukaat.

Ederra kontua.

Eta lehen belarrondokoari bigarrena, orduan-
txe haizatu du zorioneko ipuinen kontua. Andraz-
koak baiezko keinua egin du, soa nire begietan
iltzaturik. Argitzeko agindu diet, marka uzteak
zer esan nahi duen. Eta Xenarok azaldu du Ma-

nuel Rivasek ipuin bana kontatu diela herritar guztiei.

Arrazoa batek jakin, ez nau errebelazioak harritu.

Zertarako nagoen hemen alboratu dut une batez. Gueren honek ere badu zer aleturik. Une horretan errekan behera aldendu da atsoa, galzten lainoaren artetik. Ba ei daki gizonaren erretolika. Goizago edo beranduago Tomas Olsson azalduko zaio atzera ere, Errusiako armadaren kamixeta marraduna soinean, Yolanda Castaño-ren poemak galegoz errezitatzen.

- Entzun nahi duk nire azken ipuina?

Beharko.

Zolitu egin dut entzumena. Fandiño delako baten ahotsak burrunbatu du Azken Epaiaketaren atezain errukibakoarena balitz bezala: *Aditu, sasikume horiek! Gorpu freskoen zakilak jateko irrikan dauden milaka paneka bizi dira hor. Eta begiak ateratzen dituzten karramarroak! Eta barrabilak xurgatzen dituzten olagarroak...! Eta bat-batean, bakailao laminarik finena bezain meharra den umegorria irteten da zulotik...*

Arousako itsasadarrean bisitatutako batea gomutatu zait berehala. Muskuiluen artean farlopa, ez da makala. Ez dakit Xenarok ez ote didan erakutsi nahi ni baino gehiago dela. Kontalari trebea ez bada ere, berbetak ez du herren. Zazpi belarriz aditu diot istorioa. Eta onartu galderaren maleziarik eza, Azken Epaiketaren atezainaren aurrean egon naiteke-eta. Herrira bueltatu aurretik, Ourenseko musika-eskolan aritu zen lanpostu hartan behinik behin, funtzio publikoan ibilitako indiano argia. Paketeak ehun eta berrogeita hamar metroko diametroan soilik banatzen ziztuen. Hortik aurrera taxia eskatzen zuen.

- Eta zer dela-eta kontatu dizue Rivasek ipuin bana?

Hotz eta motz erantzun dit, ez zakiat.

Ikusita ezin zela denekin batera egon, bana-ka hitz egiteari ekin zion idazleak. Xenarori bera-ri aitortu zion ezinean ikusten zuela bere burua denengana ailegatzeko ez bazen molde hartan. Nahiago zuen banan-banan, gainera. Lehenik eta behin herriaren errolda osatu zuen, nortzuk

ziren eta non bizi ziren. Eta denak bizi ziren herrian, Coruñan ikasten zuen Anxela gaztea salbu. Harekin ere elkartzeko asmoa azaldu zuen Rivasek. Hilabete inguruko lanak izan zituen. Hainbatetan lau edo bost bider kontatu behar izaten zuen ipuin bera, bati baino gehiagori ahazten baitzitzaion. Denbora hura joandakoan, herritik hanka egin zuen ipuin berri batekin: *A lingua das bolboretas*.

Xenaroren azalpenak ez zaizkit sinesgarriak iruditu.

- Gainera, bueltatu den guztietan ipuin berriak kontatu zizkiguk. Batzuek bi zakizkitek. Edo lehena ahazten ditek.

Bizitzari buruz zer edo zer kontatu nahi dielakoan dago. Eta hartaz dena jakitea ezinezkoa delako erakusgarri, ez die denei guztia kontatzen. Bakoitzari apur bat ematen dio.

Hats pixka bana.

Xenarori sinetsi behar diodan galdetu diot neure buruari zubia utzi eta gutxira; kasu eman behar diodan. Eta sinestekotan, zer kontatu ote dion Rivasek herritar bakoitzari. Auskalo. Dagoeneko mela-mela eginda nago. Nire guardasolak

deus gutxi ahal du orvalloaren kontra. Jendatu beharrean nago, galegotu. Belarriak zorroztu behar ditut, orain arteko gorra baztertu. Esaldi madarikatua osatu bitartean, denekin harremantetan sartzera behartuko nau idazleak.

Zeren Manuel Rivasek uste baino zerikusi handiagoa baitu nire bizitzan. Bazuen Garaziri *Las llamas perdidas* izenpetu zion unetik, nahiz eta ni askoz geroago konturatu. Eta badu Lolok *¿Qué me quieres, amor?* ipuin-liburua oparitu zidanetik.

Adiskidetasunaz galdegin zidan lagun txikierak hileta baten ostean. Ez ginen elizkizunera sartu. Erabakita nengoen eliza batera ez sartzera arreba nagusia Manoel Jorge de Medeirosen ezkondu zenetik.

Arrebarena Santa Mariako kaperan gertatu zen. Abadeak, Aranda de Duerokoa bera, baiezkoa eman dio aureskua barruan dantzatzeari, mezerdiaren ondoren. Unea ailegatzean, ordea, ahantzi egin zaio gizonari. Aureskularia eta txistularia esperoan daude, burgostarraren eskui-

naldean, zutunik *Santiagoren Lepamoztea* koa-
droaren azpian, niri imintzioka. Gogaitzen eta ur-
duritzen hasi dira. Halako batean, Jesukristoren
gorputza bildutakoei eskaini baino lehenago,
dantzaria aldarearen aurrean paratu da. Aba-
dearen atzean egurrezko gurutze marroi ilunka-
ra dago, gaztea koreografia berrian dakusat
hanka egin ezean. Gonbidatu lisboarrak adi
daude, dantzariaren birjintasuna itsugarria da
txal beltzen ondoan. Beranduegi, baina. Gizale-
gez txapela erantzi, apur bat bizkarra beheratu,
Jesukristoren gorputza irentsi eta bazterreko
Santiagoren borreroengana bueltatu da buru-
makur.

Ezer ulertu barik, gonbidatu lisboarrak ko-
mulgatzen abiatu dira. Azken ostia banatutako-
an bakarrik konprenitu du abadeak zer edo zer
falta dela. Eta akordatu egin zaio. *Orain ekin die-
zaiokezu ikuskizunari.* Izerdi likina dario jotzai-
learen sudur zapalari, irrist egiten diote betau-
rrekoek. Bakailaoa maneatzan trebeak omen
dira portugaldarrak, baina orain ikasi behar dute
pil-pil erakoa. Lar urduri dago mutil guria, ofizio

falta eta gantza sobera du. Jausten bada, neuk gurutziltzatuko dut.

- Zer da hiretzat adiskidetasuna? -itaundu zidan Lolok hiletan.

Kontua da inork ez genekiela zendutakoa nor zen, ze inporta. Lolok, gerora afari batera eroango zidan *¿Qué me quieres, amor?* liburua aitatu zuen, Manuel Rivasen ipuin-bilduma gorai patua.

- Bazagok hor harremanen gaineko alegia ederra.

Lagunak bere xedeen morroi bihurtu nahi zuen hildakoa.

Ni isilik, doluarekin bat.

Baina ordurako bazuen idazle galegoak beste hanka bat nirean. Garazirenaren ostean, Lolok ez zidan bakerik emango harik eta *La lengua de las mariposas* ipuinaz gogaitu arte.

- Honako hau entzun ezak: *La mariposa chocó con la bombilla, que se bamboleó ligeramente y desordenó las sombras*. Ederra, ezta?

Ez nion erantzun.

Galdera ez zen bion adiskidetasunaz, Garazi eta neure artekoaz baino. Cataniakoa bururatu nuen. Ez nituen hitz eta detaile guztiak gorde-

tzen. Mozkorturik zegoenez. Galdetze hutsagatik, besterik gabe. Hitzalditik tangoetara joan zen. Katu itxurako dantzakidea zeukan zain kafe-tegiko barran, zetazko zapia lepo bueltan. Atzamar luze-hezurtsuak eramaten zituen bekoki zabalatik garondora behin eta berriro, Caterpillar baten moduan. Ni neu, berandu baino lehen galdu nintzen karriketan barna. Plazek gaueko soineko dotoreak janzen zituzten. Catanian plazak kameleoiak baitira.

- Zapata oinera zelan, hala sinatu zidak liburua Rivasek.

Garazik ez zidan jakin-min eza barkatu.

Baina orduan ez nuen ezer sumatu.

KAXA PARAMUNIZIPALA

- Eguna hasteko ederto legokek gormutu bat -desiratu zuen Gerenak.

Narruzko poltsan guardasol berdea zeroan blonda barruratu zen igogailura. *Egun on* murmurikatu zuen eztul egitearekin batera. Ezpaine-tara eraman zuen eskuin ukabila berezko keinu batez.

Berbak doi, baina ez inondik inora gormutua.

Sabaiko lanparak sartu berria arakatu zuen, argi itsugarria Gerenaren alde. Film laburra osatu zuen buruan. Ez zegoen dudarik: emakumea lehenbizikoz sartzen zen. Hormaren aurrean paratu zen besoak luzaturik, gorputzean erantsita, bere altuera marraztu nahiko balu bezala. Galdera baten zain zegoen, seguru, noiz behégainari begira noiz goiko argiari. Tarteka Gerenari berari ere so egiten zion, baina haren begiradarekin topo egitean berehala kentzen zuen. Lehenengoz sartzen zirenen jarrera begibistakoa iruditu zitzaion Gerenari, ze ohiko bi-

daiariek bazuten kadentzia berezia, eta zeharo mekanizaturik keinu guztiak.

- Gormutua...

Sinetsita zegoen lehen bezeroa nolakoa, halaxe etorriko zitzaiola eguna. Isila bazen, lana ederto batean joango zen; baina berbalapiko hutsa izanez gero, akabo bake santua.

Begoñako igogailuan aritzen zen beharrean, non egunean zehar 420 bider *hola* aditu behar zuen, 321 *buenos días*, 21 *egun on*, 459 *hasta luego*, 125 *agur* eta 86 *bueno*.

Kutxa zahar paramunizipala munduarekiko zilbor-hestea zen. Beherako bidaiak balizkoak ziren, urratzeak, haustekak. Gorakoak, berriz, aterpetzeak, abaroak, baiezkak. Hormigoizko talaiak lehen ogibidea eskaini zigun. Ipar partean La Salveraino luzatzen ziren gure largabistak, San Antoneraino hegokoan. Urrutiago zelatzerik bagenuen arren, itsasadarrarekin baino ez geunden axolaturik. Kartoizko txartela zen gure *santoseña*, non Gerenak hango eta hemengo zigiluak ezartzen baitzituen. Eta Garazik zeu-

kan egurrezko plumierrean gordetzen genituen altxor ttipiak: kapikuak. Noizbehinka billeteen ta-koak ere eskatzen genizkion Gerenari.

- Gormutua...

Igogailuko atea zabaldu baino lehen, behar-ginen artean errotutako ohiturari kasu, lehen be-zeroa zelan bataiatu ebatzi zuen: gizona baldin bazen, Gari; eta emakumea, Europa.

Eta blondak hanka egin ostean berekiko erre-pikatu zuen:

- Europa!

Europa ostera ere ikusiko ez zuelakoan zegoen Gerena.

Gogoratu zen aitona Ramirok kontinente zaharrari zion miraz. Eta hark bazekien zertaz zebilen, urte mordoa eman baitzituen Alsaziako meategi batean. Han ere bazeuden igogailuak. Eta Begoñakoan ez bezala, han bazegoen alderik jaistearen eta igotzearen artean. Igo ahala espazioa gero eta zabalago bihurtzen baitzen, eta itoko zelako sentrazioa desagertzen zitzaion. Ze meategietan denbora luzea igaro arren, sekula

ez zen ohitu, eta behin baino gehiagotan jasan behar izan zituen zorabioak eta klaustrofobia oldar itogarriak, baina bere kolkoan gorde zuen hura guztia. Europa jokoan zegoen.

Une hartan bost gizon-emakume sartu ziren igogailura oihuka arrantzaka txilioka. Hazpegietan zitzaien nabari ez zutela bisa beharrik.

- Hello. Five tickets please... Excuse me, we are looking for our hotel...

Hauexek guretarrak dira, pentsatu genuen. Europarrak.

Okerreko bidea hartu zuten. Ez zegoen zertan igo Carlton hotelera joateko, berriro jaitsi beharko zuten. Gorako bidean, Gerenak beherantz seinalatu eta bostek lehenengoan ulertu zuten. Eta barre-algaraka hasi ziren segidan, barre ergelak.

Gora ailegatzean, ateak zabaldu barik artez jaistea ebatzi zuen Gerenak, hurrengora arte itxoinarazi gabe. Aise konprenituko zuten keinuaren polita. Azken hilabeteetan, Munduko Futbol Txapelketa zela-eta, ikaragarri ugaltzen ari ziren europarrak. Hormigoizko igogailua bitxia iruditzen zitzaielako igotzen ziren gehienak. Eta

arragozaia edozein zelarik ere, *it's amazing, it's amazing* errepikatzen zuten zein zurturik zeuden erakusteko.

Beherako bidean Gerenak berriro ordaintzera gonbidatu zituen, atzamarrekin lagunduz:

- Beste bost txartel, mesedez.

Kanpotarrek ez bide zioten entenditu, eta begira geratu zitzaizkion, isilik. Elkarri begira. Ger-tatzen ari zenari erreparaturik, Gerenak atzamar luzea baliatuz azaldu zien zorretan zeudela.

- Bost gora, bost behera.

Aurpegi kamutseko europarrek argi ikusi zuten amarrua. Eta garrasika orroka marrumaka hasi ziren: *Ye fucking asking us to pay it again? What a fuck is this? Go to hell, bastard!*

Eta abar luze-zabala...

Berba ingelesezkoak zokondo guztietara zabaldu ziren mehatxagarri, horma ezinbestez lohitu behar duen graffitiaren moduan. Zineman, egun batzuk lehenago, ikusitako marrazki bizidunetako mailu militar ibiltariak etorri zitzaizkion Gerenari burura.

Baina ez zegoen prest amore emateko.

Behean ez zien atea zabalduko, zirt edo zart egin beharko zuten.

- No pay, no open.

Toki zarratu batean denbora luzea eman eta gero, beherantz begiratzera kondenatzen duzu zeure burua. Kalera atera eta zakurren moduan ibiltzen zara, usainka kasik. Herriekin, berriz, alderantziz gertatzen da. Arrazoiak arrazoi, gora eroaten duzu beti behakoa. Espainiak zuri behatzen dizu; zuk, Frantziari; Frantziak, Ingalaterrari eta Alemaniari. Eta den-denek Europari, ipar-poloko leku izozturen batean egon behar den gune horri.

Gerenak lurrian erdi etzanda erdi eserita ikusi zuen bere burua bat-batean. Gora begira zegoen. Kosta zitzaion ulertzea nola ailegatu zen egoera hartara. Hazka egin zuen bekokian. Igo-gailuaren atea zabalik zeuden eta, bere ondoran, norbait ari zitzaion galdezka. Nekez ulertu zion lehenengoan, jakin ere ez zekien berarekin ari ote zen. Bere harridurarako, lehengo blonda bera zen, eguneko lehen bezeroa. Europa. Nes-

kak zutitzen lagundu eta Gerenak haren eskuak sumatu zituen ukondoetan. Atzamar oso finak zituena, piano-jotzaile batenak iduri, nahiz eta bere bizitzan piano-jotzaile baten eskurik ez ukitu. Baina hori zioten denek, atzamar fin-finak piano-jotzailearenak.

Poliki baina, bere onera bueltatu zen. Ederto gomutatzen zuen zer gertatu zen. Europarrak ez zeuden. Begirada goxo eta hitz amultsuz, halaxe sartu ziren igogailura. Makur eta zakar irten ziren, ostera, *yu fucking bastard* aldarrika, Oxfordeko ingeles dotorean, poetak zioen moduan okerbideak ez baitaki mintzaerarik.

Bilauek hanka egin arren, Europa apur batean gelditu zen. Carmen.

Edo Karmen.

Mamen.

Andrazko eder-ederra edozelan ere, batez ere igogailuko kobratzailearen aldean. Ze Gerena, maingua ez eze, motza ere bazen. Ziraun aurpegia zuen. Herdoiltzen hasia gainera, paradisuaren pare.

Boxeozailea zen Mamen.

Marzana moila mukuru zegoen, lohi zetorren itsasadarra. Euriteak inguruetako hondakinak eskobatu zituen aurreko egunetan. Denetik: aterkiak, pneumatikoak, zuhaitz enborrak...

Baita fagorrak, edesak eta otseinak ere.

Borroka azken unera arte egon zen kolokan. Baina ura lohi bezain bare itsasoratzen zen orain. Enborren adaxkak, plastikoak eta Turman Sozietate Anonimoko pieza ttikiak gailentzen ziren Abrarantz itsasbeherarekin elkar harturik. Enpresak enplegu espedienteak zituen zabalduak, desagertzera deituta zegoen, ez ordea langileen batzordeak istilurik eragin gabe. Eta gezurra iruditu arren, norgehiagokaren babeslea zen.

Gabarra baten gainean zegoen paratuta ring flotagarria. Arratsaldeko zortzietan, maiatzeko eguzkia ostendu guratan zebilen. Borrokak luze jotzen ez bazuen, eutsiko zion. Lehen aldia zen bi pugilentzat Ibaizabalen erdian. Juan Ramos *El Junco del Peñascal*-ek bazuen eskarmenturik Ogoñoeko uretan, Elantxobeko urpekariekin. Adorea ematen zion jakiteak ez zela zorabiatuko. Mikel Irigoien *Oñatiko Zoroa* favorito zetorren,

herrialdeko txapelketan *crochet* batez makurraz-
razi zuen Belcebú beldurgarria.

Lehorrekoa irristatuko ahal da! Huraxe beso-
ak zubiko baranda gainean bermaturik zituzte-
nen desio irmoa. Gerenak bere artean galdetu
zuen ez ote zuten galtzailea uretara botako. Tur-
manen zaildutakoa zen igogailuan hasi aurretik.
Berlangaren film guztiak fede bazitzaizkion ere,
sinetsita egon zen Chicagoko garbigailuek behin-
betiko jira emango ziotela bere zoritxarrari.
Bigun-biguna zuen esku-ahurra Mr. Grussin pre-
sidenteak. Kalte egiten zion Bilboko poluzioak.
Eta ez zen bueltatu.

Galtzailearen izenak auzoko hormak lustratu-
ko zituen hurrengo egunean letra larriz: *GAME
OVER*. Zoroa bazen, barre egingo zioten, beste-
rik gabe. El Junco egurtuz gero, berriz, amenazo-
ak azalduko ziren nonahi. Harrokeriaren eta lo-
tsaren artean ezker kolpe bat baino ez baitago.

Ibaiaz bestaldera abiatu ginen. Zubian dirua
lotsati mugitzen zen, gertuago zeuden borroka-
lekutik merkatuko zaletuak. Han oñatiarraren al-
deko hautuak erre egiten zuen, baina *business is
business*. Nabarmenkerian ari zirenek bazioten

iruzurra onartu beharreko garaipena dela beti. Eta bazekiten zertaz zebiltzan, merkatuan poltsikoetan artezten baitziren saltzaileen kalitate-kontrolak.

El Junco del Peñascal ziplo jausi zen Ionara lehen asaltoko lehenbiziko kolpean. Euri-jasek azken egunetan ekarritako zabor guztiak bat-batean gabarrarekin talka egin balu bezala entzuzen. Danba! Kolpe sano lehorra izan zen, oihartzunik gabea, garbia inondik ere. Harridura zabaldu zen berehala batera eta bestera, kartelak ez zuen halakorik aurreikusten.

Segituan Belostikalera sartu ginen. Haserre gindoazen, damutuko zitzaion Mr. Turmani eskuen biguna. Mende bat lehenago Negrok bi asaltotan akabatu zuen El Inglés mustatxaduna. Toki berean.

- Hireak egin dik, game over.

Gerenak sinetsarazi zigun garaipena gozatu beharreko iruzurra dela.

Danba! El Juncorenak besteko burrunba atera zuen Gerenarenak. Kolpe sano lehorra, oihartzu-

nik gabea, garbia inondik ere. Lolo eta biok ikaratu ginen gehien. Herrera izanagatik, ez genuen halakorik aurreikusten.

- Maitemindu egin duk. Lehen asaltoan.

Eta bere hitzei laguntzeko, lurrera bota zuen bere burua Garazik, besoak zabal-zabal, Peñascaleko pugila bezain indarge.

Harenak ere merezi zuen igogailuko horma zikintzea, letra etzanaz besterik ez bazen ere: *Gerena, game over zagoz!*

Mutilok Garaziri eskainitakoen ondoan.

Igogailuko horman ez ezik, ondoko haritz zaharreko enborrean ere onartu nuen neure porrota. Lona gainean nentzan arnasarik hartu ezinik, bihotzaren taupadak lauhazka eta erotuta nituelarik. Lurretik lehen asaltoaren kartela erakusten zuen azafata ikusten ahal nuen, takoidun zapa-tak soinean, barreka, Garazi erdi biluzik. Igogailuko hartan Mamen bezala. Gerenaren itzartzea bezain goxoa zen K.O. hura. Ezin zabaldu, ordea. Lolok ere amore eman zuen bigarrenaren txilina jo aurretik. Ingeniari ingeles mustatxaduna be-

zain borrokakari sutsuak ginen, bezain ausartak. Bezain kaxkarrak, antza. Egoera berean egon arren, ezin genion elkarri aitortu. Lehenago hil. Denborak jarriko gintuen aurrez aurre, ezkerraldea eta eskuinaldea bezalaxe. Bitartean, eremu neutro baten beharrean geunden.

- Alirón, alirón, Gerena es campeón!

Urte hartan Errealak Espainiako futbol txapelketa irabazi zuen.

Gure siderurgia eta metalurgiari esker.

Sarabiak azken unean sartutako mustarda zaporeko golari esker.

Zubizarreta; Urkiaga, De la Fuente, Goikoe-
txea, Lizeranzu; Gallego, De Andres, Urtubi;
Dani, Sarabia eta Argote.

Denak burdinazko.

Hurrengo bi urteetan bederen. Industriaren gainbeherarekin batera, gogortu eta gotortu egin ziren.

Eta geu ere bai.

- Alirón? All iron! -mespretxatu zigun Gerenak.

Zirudenez, ingelesek lur-azpitik ez eze, futboletik ere joa zuten aspaldi eraso ankerra.

Futbolean ere sator.

- Alabin, alaban, alabin bon ban, Iñaki, Iñaki, geuria!

Mamenek berak proposatu zigun garaiz Athleticen oihu berria, baketu aldera. Gerena samurtu egin zen. Eta dantzan hasi zitzaigun. Une batez begitandu zitzaidan hanka bien gainean ari zela, zalu eta arin.

Lurrera ahuspez jausi aurretik.

Purgatorioa-1

Behin batean ez atzera ez aurrera gelditu ginen Begoñako igogailuan. *Halakoxea behar din purgatorioak, xuxurlatu nion Garaziri, bost lagun aurrez aurre, esperoan.* Lehena, urduria; bigarrena, zinikoa; hirugarrena, ausarta; laugarrena, ondradua; eta bosgarrena...

All iron, denak burdinazko.

Eta ni hari begira.

OSTIRALA

Betekada handia hartu dugu bart. Gurekin batera beste gizon bik afaldu dute, Manuel Besteiro eta Juan Pedreira. Manuelek arkumea ekarri du. Animaliak begi tristean zituen, bizi-min urragarri antzeko bat. Hotzikara sumatu dut bizkarran behera eta surtara ondoratu naiz. Amaitutakoan, Ostegun Santuko mezatara joateko gonbidatu nau Pedreirak. Badoaz hirurak, baina beharrik ez dagoela argitu dit Xenarok buru-keinu batez. Harritu egin nau apur bat proposamenak, sinetsita nengoen Besteirok eta Pedreirak euren ipuinak kontatu behar zizkidatela afalosteko solasaldian.

Baietz erantzun diet, bestelako zereginik ez nik. Segituan San Bartolomeren basiliza erromanikora abiatu gara. Apaiz-laguntzaile dihardu Xenarok. Abadea asteazkenean tabernan zegoen gizonetako bat da. Lehengo eguneko arropa bera daroa soinean, artilezko jertsea eta panazko praka maiztuak. Jertsearen gainean kapa morea du. Direnak batu dira, ohitura errotua

dute. Apaiza Kristoren pasioaz aritu da, hitzetan dotore, baina ez diot arreta handirik eskaini. Rivasek zein ipuin kontatu dion, horra kezka bakarra. Halako batean, Pedro aitatu duenean, Monchorekin akordatu naiz, *A lingua das bolboretas* ipuineko mutikoarekin. Zenbat Pedro eta zenbat Moncho! Oilarrak bigarrenez jo baino lehenago, hiru bider ukatu du. Irentsi dugun arkumearen begi errukarriak ekarri dizkit burura hotsak.

Egunsentia ederra agertu da gaur, dena ez da beltza Galizia honetan. Buruan gehiegizko pisua nabaritu dut. Mezatatik irtendakoan Pedreira setatu egin zen, niri arrenka beste biak helburu.

- Eskualdeko oruxorik goxoena diat.

Eta ezkutuko alanbikoa. Etxalde atzean, ondulinezko estaldura baten azpian.

- Eta egia duk, bertoko petrolioa -adoretu nahi izan ninduen Xenarok.

Pedreiraren pattarra, eztarri erregarri, Manuel Rivasen ipuinak aletzeko adinakoa. Ni neu Gerenari buruz mintzatu nintzaien. Hainbatgarrenez *Que vida...* madarikatua, hobenduna hilduratzen den gisan.

Alferrik, ordea. Ez zekiten zer esangura zeukaten hitzek.

Baina ez nuen besterik espero. Konturatu aurretik, Pedreira bere ipuina narratzen ari zen, detaile xumeetan gelditu gabe, Vions pertsonaiaren gereziak mahats bilakaturik.

Ajeak aje, goizik kaleratu gara gaur Xenaro eta biok. Herriko plazatxoan Renault Transfer furgoneta horixka dugu zain. Kristo gurutziltzatu dute ondoko herri batean eta hemengo bartzuek parte hartuko dute pasioan. Pedreira bera da erromatar soldadua; Isidora Varela, Maria Magdalena; eta Vicente Porrás, lehen egunean tabernan Celtako jokalaria egurtzen ibili zen aditua, Kaifás. Porrás ahobero hutsa begitandu zitzaidan, neurriko iritzi diot egokitu zaionari.

Pedreirak biharamunetik askatu du Rivasen ipuina.

- *Beldurrak babesten du gereziondoa umeengandik.*

Rosendoren sudadera beltza alboratu du gazte txima luzeak Kristoren soineko zuria bezti-

tzeko. Pilatosenean mantu gorri zahar bat jantzarazi diote, eta berehala odolez lohitu zaio. Joaquin da, literatura irakaslea. Bukatutakoan ez du indarrik izango trash bandei entzuteko Coruña. Soldaduek zauriak eta ubelduak eragiteraino kolpatu dute metalero ilustratua, amorrutik kolpatu ere. Zizpuruak eta oinaze-deiadarrak benetakoak dira. Pedreirak berak ipini dio arantzazko koroa buru gainean eta kanabera eskuetan. Horra gotikoen erregea.

Ecce heavy-a.

Judutarrak iseka eta trufaka ari zaizkio, aurpegia listuz zikintzen diotela, kantari satanikoa balitz bezala. Vicente Porras serio ari zaie begira, ez da bere eszena. Touroko muinora eroan dezaten premiatu ditu pasiokideak. Belu dabilta eta Pazkoa gainean dute. Ilundu ezkerre ez dago juduen Erregea gurutziltzatzerik.

Nire ondoan gizon-emakume aldrak oihuka hasi dira, *Crucifige! Crucifige!*, atzoko apaizak erakutsitako berbak. Artilezko jertsea eta panazko praka azulak daramatza gaur ere soinean.

- Hona hemen gizona -aurkeztu du hainbatgarrenez Pilatosek.

Aktore amateurra ematen du. Barrabas du azken aukera.

- Ez duzue nahi gizon hau libre geratzerik?

Gehiago luzatuz gero, Pilatos honek arte eszenikoen dohainak baino zer edo zer gehiago beharko du hemendik salbu irteteko.

- Kalbariora! Kalbariora!

Muinoan pilatu da kanpotar gehien. Herriko aguazila gorriak ikusten ari da bildu den jendetza behar den moduan antolatzeko. Gainera, zerua belzten hasi da, aldaketa dakar seguru.

Literatura irakaslea Valle-Inclanen gezur eta Jon Bon Joviren kalpar luzeenaren beharrean dago goraino ailegatuko bada. Bakarrik doa bilin-bolonka, apostolu gabeturik. Nekez bizkarrreratu ahal du hiru metro luze eta bi metro zabaleko gurutzetzarra. Lehenbizikoz lurreratu orduko, herriko harakina azaldu zaio ondora. Eguurrezko gurutzea lepoan hartu eta arindu zaio martxa Kristori.

Kalbariorako bidea ere gainezka dago. Agirika eta trufaka egiten diote jerusalemdarrek Nazaretarrari. Baita umeeek ere:

- Apoa! Tilonorrincoa! Irisa!

Moncho ugari dago herri honetan. Atoan, Papillon preso frantziarra akordatu zait erbesterako bidean, Irun edo Hondarribira agian, San Martzial edo Ama Guadalupekoa egun sargoritsu batean.

Xenaro ere badabil burlaka. Laster ikusi beharko du nor den benetako erregea.

Isidora Varelaren unea ailegatu denerako ostatu batera sartu gara. Goian ez dagoela giro erabaki du Besteirok, Albariñoa denontzat. Gero eta kanpotar gehiago agertzen ari da urtez urte. Herria postaleratu berri. Nik ere antzeko postala ekarri nion Garaziri Cataniako bidaiatik, Taorminako antzokia goiko aldean. Atzean zuri, ez nuen deus idatzi.

- Zer iruditu zaik? -egundo deus egin ez duenaren harrotasun hutsalaz mintzatu zait Besteiro.

- Hunkigarria.

A lingua das bolboretas ipuinaren irakasleaz gogoratu naiz denbora osoan. Txima luzea eta musika zaletasunak alde batera, antzeko morroia ez ote zen.

- Herriko maisua fusilatu zitean, ezta?

Que vida... esaldiarena barik, Carlos Sueiro Mirasen arrastoa topatu nuen hilerrian lehen egunean. Beste guztien ondoan lur emateko detailea hiltzaileen alde, bederen. Candana mendira eraman zuten beste gizon batekin Hispano-Suiza blindatu batean. Arte baten aurrean paratu eta tiro eman zieten bular parean. Segidan herrira bueltatu zituzten eta kanposantuan lurperatzeko agindua eman zuten. Bestea alkatea zen, matxinatuen babesle bizi zen artean.

Non edo nondik abiatu beharra zeukan Riva-sek.

PAULOVA HISPANO OLIVETTIN

Purgatorioa-2

Ospitaleko eremu kirastu hartara lehenbizikoz sartu ginenean, zera ikusi genuen: Kantauriko apar izoztua abenduan, alga hilen hatsa, Lauaxeta hil zuten eskuen atzamar zurbilak, farolen argipeko oinatz okerrak, tira egiten duen harrabots espantagarria, orbel gorri hezeak, hordituen kanta desafinatuak, kakalardo zapalduak, erraiak formoletan, eztarri urratuak, basa lore zimelak, Tercio Norteko pinporta beltzak, hiletarien errezoak, euri disidentea, sutontziaren txingarrak, negu-mineko ilunabar ezkorrak, larregi umotutako madariak, gogortutako arto opilak, beratu egin den lapikoaren lohia, Mount zakurra-
ren begi ilunduak, Besteiroren arkumearen begi urrikalgarriak...

Eta Gerena buru-makurturik, lo-zorroan.

Aurrez aurre, esperoan.

Nikolas Barrena *Kresala* eta Xabier Amezagarekin finitu zen eredu literarioa prentsan. Denbora galtzea da gaur kronika, ikus-entzunezkoek ez dute alferrik hura lekutu. Gazbakoa da, txepela erreportajea, lausenguz bete dituzte elkarrizketaren galderak. Kazetariak beldurrez ari dira, adurretan egon daitezke Kazetaritza fakultatean.

Gerenak gaztigatu egin zigun. Asteburuetan *Hierro* egunkarian kolaboratzen zuen. Bere kronika zorrotz bezain ederrek La Naval baino goragoko mailara eroaten zuten Sestao futbol taldea, River. Hirurehun berbatan agertu behar zituen Anselmo Nuñez *Boli*-ren mutilen balentriak. Partida kaxkarretan, *mister* betekerrak jokalarien samak bihurritzen zituen bere karramarro eskuez. Entrenatzaile bikaina zen. Hala ere, baze goen haren dohainak eta moduak zalantzan jartzzen zituenik, ikusmen eskasa. Gerenak berehala uxatzen zituen duda guztiak: *zuek bezain urrunera hel naiteke hanka bakarrarekin. Boli ez*

da minbizia. Eta zegoen tokian zegoelarik, itsasadar zabalera bihurtzen zuen begirada, handik etorriko balitzaizkio bezala garaipenak eta porrotak. Taldea, hala ere, ez zen petrolioaren krisian itotzen. Bigarrenera igotzeko ametsa ez zen ontzioletan deliberatzen.

Mamenekin La Najako tren geltokian lotu, Gerenaren bila joan Sestaora eta handik salto egingen genuen Bizkaiko futbol zelaietara: Maiona Ategorri Soloarte San Jorge Basozabal. Bidean zehar mila galderaz zigortzen genuen Seat 850 gorria.

- Nor da arkeroko bizkorragoa, Lezea ala Sarobe?

- Zein izango da gaurko hamaikakoa?

- Igoko dira?

Ukatu egin zioten *El Correo Español*-en kolaboratzaile-lanpostua. Ez zegoen Boluetako aldaketako bulegoetan Las Llanas futbol zelaietara ateei angelurik ikusten zienik. *Hierro*-ri aurrea hartua zion arren, sestatarrek bazekiten zer irakurri Simon Drogaseko mezetan. Geuk ere Gerenarenak bakarrik estimatzen genituen. Amezagak zuri-gorriari buruz eta Kresalak han-hemengo

pilotalekuetan jasotakoak ere deszifratzen genituen, noski, kazetetan bazegoen genero epikorik.

- Amezaga eta Kresala jubilatu orduko akabo prentsa!

«Testamentu Berria» esaten zien Gerenak Kresalaren kronikei, derrigorrezko genuen Biblia pilota partidarik egundo ikusi ez arren. Grimm anaien ipuinak balira bezala irakurtzen genituen, gerriko urdina heroia gerriko gorria bilaua. Elkaren munduan zeharreko ibilaldiak zelakoak, halakoak begitantzen zitzaizkigun Roberto Garcia Ariño, Panpi Ladutxe eta Bermeoko Txoren ezker gantxo eta sotamanoak.

- Beste ebanjelista bi falta zaizkigu, mahaia herren dago-eta.

Onartu ez arren, bere apalean Gerena ere bazen partidakoa.

Hirugarrena.

San Lucas.

Boliren asto baldarrak Moskuko Ballet Nazionalaren dantzari bilakatzen ziren haren Hispano

Olivettin. Burukada erdiratze geldiketa adina klak sortzen ziren idazmakina zaharrean. Klak klak klak beste jokaldi. Sarobe zen Lezea baino atezain bizkorragoa, Ezkerraldeko Paulova. Beste guztiak haren aurrean paratzen ziren, talde defentsibo bezain eskasa zen River. Ordu-rako burdinazko zikoinak belaunak makurtzen hasten ari ziren, tendinitisak jota baleude bezala, lehor haizeek astintzen zuten Koreatik. Futbol-zelaian gertatzen zenak zerikusi gutxi zuen paperean agertzen zenarekin. Gerenak begi bat zuen berdegunean eta bestea ontziolan. *A. Maria de Pando* eta *M. Luisa de Pando* itsasontziak gorpuzten ari ziren IZAREkoetan. 168 metroko luzera, 32ko zabalera eta 15eko altuera, Marítima Antares-en enkarguz. Baloi gehienak, ostera, Laminados Aguirre S.A. lantegira galtzen ziren. Bartzuk ondoko eremu batera ere jausten ziren, sasar eta gurpilen artera, non auzoko mutil gose-tiak esperoan baitzeuden kiskalitako auto baten ondoan. Gerenak argi zuen eta egoki zeritzon entrenatzailearen planteamenduari, batasuna inoiz baino beharrezkoago zuten. Gibelaldean itxaron eta behar zen unean erantzun.

Hura estrategia.

Laugarren hanka ere nahitaezkoa zen eutsiko bazioten, laugarren kontalaria Ebanjelio iraunkorra osatzeko.

Gerenak hirurok etsaminatzen gintuen partida bakoitzean, banaka eta astiro, zomorroak mikroskopioan aztertzen diren moduan. Hiru muki zu etorkizun goibel baterako. Agortu egiten zitzaizkion espezieak entomologoari. Erabakita zegoen. Egur zaharrak arotz berriak behar zituen. *Mister* genuen ordurako.

Lehen partidetan etorri ziren baztertzeak. Mutilok kezkatuago genbiltzan Pando haren alabekin. Urrezko G erraldoia ikusten genuen Irlandako bandera peko txopa batean. Eta konturatu baino lehen aulkien zokora bidali gintuen.

Garazik idatzi beharko zituen handik aurrerakoak oro.

- Bizitzan lizentziatu gura baduzue, erdu nirekin.

Halako batean horrela bota zigun Gerenak, gurasoek baimena emana zuten. Haren adiskidetasunaz preziatzen ziren.

Egunkarikoek gutxitxorekin berdintzen zuten zorra. Bidegabe generitzon. Hirugarren maila osatzen zuten herrietan arduratuago zeuden Gerenaren kronika laburrekin PSOEn etorrerarekin baino. Anitzez gehiago aitortzen genion. Ikusi besterik ez zegoen zelan zapaltzen zituen bateko eta besteko harmailak. Mozkortia tabernariari nola, hala hurbiltzen zitzaizkion zaletuak, debozioko indarra nabari zitzaien ahoskeran. Eta ez ikusleei soilik. *Hierro*-k ez zion itzalik egiten *El Correo*-ri, baina bolo-bolo zebilen Alfredo Gaston, *Postaria*, aholku eske inguratzen zela *Burdingilearengana*.

- Bizitzan lizentziatu gura baduzue, erdu nirekin.

Harropuztat jo genuen hasieratik Gaston. Musua pikatua zuen, inoiz edo behin nafarreriak jota egon zelako zantzu garbia. Hala ere, ardi-zakur aurpegia zuen. Metro eta erdi luze bazen ere, nabarmenkeria ederra zerion ahotik. Behin, Gerena aldagelan zegoelarik, kontatu zigun

prostitutak, periodistak eta poliziak toki berberetara biltzen zirela. Bera barne, jakina.

- Nora?

Postaria inoiz ez zen aldageletara sartzen, ez genekien zergatik. Guri hitz egin eta Mameni begira geratzen zitzaion, harengandik zer edo zer jaso beharko balu bezala. Baina harekin ere jai, Gerenak baino kasu gutxiago ematen zion. Eta azkenean guri azaltzen zigun hasierako letrek hartara behartzen zutela, larritik bazuten P haiek guztiek, informazioa salgai eta erosgai.

Gerena ez zen Postariarekin fidatzen. P-ren esanahia bereizten ez zekielakoan zegoen. Adarrez adar ibiltzen diren katagorrien antzo, gairik gai hasten zen erraztasun handiz. Burdingilearen ustez, hark ere zorrozten zuen begi bat Las Llanas joko zelaira eta beste bat ontzioletara.

- Azken momentuan UGTkoak kikildu baietz!

Sestaoko entrenatzailearen erabaki baten aitzakian, lanuzte deialdiaren langara bota zuen baloia Gastonek. Inork ez zion hitzik ere esan. Sestaon bat zetozen denak Boliren hesiarekin.

Batasuna funtsezkoa zen.

Gerenak erregutu ohi zigun portuari begiratzeko aurrelarien zartako gogorrei eskaintzen genien arreta beraz. Ailegatuko baitzen eguna non Santurtzitik Bilborako distantzia ez zuten garabi eta zamaketariek ebatziko.

- Tiloaren simetria zer den badakizue?

Iturrizako banku batean esertzen ginen udaberriko arratsalde gero eta luzeagoetan. Gure aurrean tilo batek Euskalduna ontziola erdibitzen zuen: ezkerrean herdoila; herdoila eskuman.

- *Colonizatu* egin dute portua eta laster *Pizarrotuko* dute gure disidentzia! Erretratatu ondo! Oroimena alferrikako talaia da zer gomutaturik ez dagoenean.

Arbola zabala luzaro begiratu ostean, jazozen zitzaigun bi silabatako hitzak hamaika bider errepikatzen direnean bezala: ez genekien zein zen lehena, zein bigarrena.

Hargatik sarritan, abiatu aurretik, Iberiako geltoki ondoko taberna batean lizentziatzen ginen.

Hitzaren esanahia jakin gabe.

El bar de Aurelio zen gure unibertsitatea. Igan-deroko hamaikakoak Sestaoko baseliza hartan negoziatzen ziren. Hormak argazki pornografikoekin santifikaturik zituzten. Lolori, ipurmamiak eskaintzen zizkion blonda pulposa batek tentetzen zion zakila. Niri, titiei esku biekin eusten zien azal beltzaraneko andra exotikoak. Zulo ttipian geografia zabala genuen, bazegoen zer ikasia. Taberna ez zen Aureliorena, Maritxu emazte zakarrenarena baizik. Aureliorenak barra eta *Lib* aldizkariaren erretratuak ziren. Hori ez zigun inork esan. Urte batzuk lehenago *Iru* zen tokia-
ren izena, baina Aurelio beti *nire tabernan hau, nire tabernan hura* ibiltzen zenez, jendea *El bar de Aurelio* esaten hasi zen. Handik gutxira, Riverren kartelak inprimatzen zituzten moldiztegiak *El bar de Aurelio* jarri zuten eta, bezeroek eskatuta, Maritxuk izena aldatu zuen. Kostata baina amore eman zuen. Kanpoko errotulua atzera ere jarri zutenean, bezero guztiak mehatxatu zituen: hortik aurrera inork bere tabernari *Iru* deitzen bazion, babarrunen lapiko handian bigunduko zion kaskoa.

Baita geuri ere.

- Gerena, zenbat bider errepikatu behar diat ez ekartzeko hona neska-mutilak!

- Beste eskola batzuk eta lizentziatu egingo ditun!

Antzarak ferratzera bidaltzen zuen segituan. Gerena beti ibiltzen omen zen lizentziaturak eskaintzen, ea lizentziatzen zuen bere senar alproja behin betiko.

Ikaragarri maite genuen Maritxu.

Nahiz eta besapeetan goroldio beltz mardul hura hazi. Sukaldeko koipe eta zikinkeria guztia xurgatzen zuen.

Tabernara Boli ere biltzen zen. Entrenatzaile ezkelak berak diseinatzen zituen grebetako istiluak, nabarmena zen berebiziko dohainak zituela estrategiarako. Halakoetan arerioak etsai bilakatzen ziren, etsai bakarra. Horrek izugarri errazten zion lana. Poliziak kontraerasoan jokatzen baitzuen beti.

Hala ere, behin baino gehiagotan bateko hamaikakoak eta bestekoak nahaspilatu egiten ziren.

- Atzealdean Irigibel, Pedrueca, Pinos eta Juanma!

- Atzealdean Comisiones-ekoak! Pankartarako lehenak, baina ostiak hartzeko azkenak beti! Berehala pipertzen zitzaien Gerena:

- Zertaz ari gara, ba, igandeko partidaz edo biharko manifestazioaz?

Estrategia helburu bihurtzea nahasgarria ez ezik, arriskutsua ere bazen. Hura zen Boliren akats bakarra. Eta gurea. Ezkerralde osoak, ontzitegiek eta labeek iraungo bazuten, nik banuen nire hamaikako kuttuna: atean, Sarobe; atzealdean, Irigibel, Pedrueca, Idoiaga (LABen delegatua Euskaldunan) eta Julian (ELAren delegatua La Navalen); erdialdean, Pacheco, Isidro, Iñaki Barandika (ELAren delegatua Babcocken) eta Joseite (USOren delegatua Labe Garaietan); eta aurrealdean, Juan Pablo eta Emilio Lopez Berasategi, CNTko anaia bikiak.

Gure artean ere sortzen ziren desadostasunak. Lolo ez zen Saroberen aldeko, goiko baloie-

tan kale egiten zuen. Julian eta Iñaki ere ez zitzaizkion gustatzen, nahiz eta ehun bider aitortu ez zuela deus ere ELAren kontra. Garazik ere bazituen bere gogokoak. CCOO eta UGTko bana sartu gura zituen hamaikakorik onenean: Eduardo Montes eta Moises Albeniz, biak La Navalekoak.

- Sestaoko taldean ontziolako jendeak egon behar dik, bestela dena pikutara joango duk!

Baina Montes eta Albeniz ez ziren fidagarriak. Hura aurpegiratzen zieten, behinik behin, Boli, Gerena eta beste guztiek. Ze guk ez genuen inortxo ezagutzen, eta gure eskuadra osatzeko entzundakoaz baliatu behar genuen.

- Juan Pablo eta Emilio Lopez Berasategik kontra egin zieten hamar txakurri lehengo bari-ku gauean.

- Eta mozkortuta biak! *Esos de marrón de qué equipo son* ez zieten ba aurpegiratu!

Orduan guk apuntatu egiten genuen. Eran-dioko anaia bikiak baliagarriak ziren. Nahiz eta CNTkoak izan.

Bazterreko mahai baten inguruan egoten ginen jesarrita. Barra gainean dozenaka txikito, soldaduak lez. Maritxuk txorizo frijitua eta Dima-ko odolosteak ateratzen zizkigun. Mount, arka-kusoz beteriko zakur otzana, aingeru begiez hurreratzen zitzaigun usnaka. Hala esaten zioten Lord Mountbatten Indiako azken erregeordearen omenez. Hiru urte lehenago irlandar batzuek kalitu zuten Sligeach-eko badian. Pospolo itxurako Lord Mountbatten ingelesa nor zen ez zekienik ez zuen Maritxuren tabernan edaten. Barra atzean zegoen, kikildurik horrenbeste titi handi eta ipurmasail borobilen artean. Masailezur irtenak zituen, betzulo sakonak eta asto belarriak. Mandatariak ontziola bisitatu zuen hil baino urtebete lehenago.

Belfast eta Bilbori buruz aritu zen beharginekin.

Titanic ingeles bat falta omen zitzaigun.

Gerenak harekin ez liluratzeko aholkatu zigun, hondalera zihoazen hiri biak, itsasontzia bezala.

- San Mames bat falta zaie hantustehoriei.

Bilbon Munduko Futbol Txapelketa jokatzeko ari zen. Gerenaren lagun batek Katedralera sartzen utzi zigun Ingalaterra eta Kuwaiten arteko partida ikusteko. Zelaia kaskamotzez lepo zegoen, denak berdinak, denak garagardoa eskue-tan.

- Titanic! Titanic! Titanic!

Denak Azoreetako antizikloia bezain hege-moniko eta tirano.

Sestao petrolioaren beharrean zegoenez gero, kuwaitarrak animatu genituen.

Italiak irabazi zuen txapelketa, eta Sandro Pertinik eta Juan Carlos de Borbonek elkar besarkatu zuten.

Greziak garaitu balu! Edo Indiak! Edo Armeniak!

Edo Sestaok!

Bilboko partidaren Gerenak ez zuen inor animatu. Garazi Lord Mountbattenekin oroitu zen. Irlandaren alde zegoen Gerena. Argiagorik!

- Irlanda? -harritu plantak egin zituen-. Irlandak... koplak eta ipuinak, asko!

Eta kontatu zigun ipuin irlandarrenak Guinness derrigortuko zuela, alproja mordoa bodhrena jotzen, Moherreko itsaslabarrak, Connemarako turba eta, zergatik ez, gaubeila Antrimgo etxalde bateko logelan, atzean IRAren bandera zirpildurik eta Kristo gurutziltzatua zeudela.

Kontatu zigun, baita ere, ipuin irlandarrenak Cromwell madarikatuko zuela hatz erakusleaz, arbolen botatzeaz mintzatuko zitzaigula eta, epika lar lirikoa ez bazen, egunaren etorrera aldarrikatuko zuela gaelikoz.

Ipuin irlandarrena Donegalen idatziko zela -Mazen bertsio bat apailatuko zuten-, *Book of Kells* bezain sakratu, eta herri irlandaradun batean O'Connell kalean Tipperaryn irakurriko zutela Pazko Igandean, hurling partidarekin mozortu ostean.

Azaldu zigun ipuin irlandarrena Gran Soleko olatu batek hondoratuko zuela.

Eta ipuin irlandarrenak ipuin euskaldunena besarkatuko zuela.

Baina ipuin irlandarrenak ez zigun sekula argituko zelan ihes egin ipuin irlandarrenari.

Purgatorioa-3

Ospitalera ailegatu berria ez izan arren, beteranoa ere ez zen Gerena.

Jesarrita zegoen, isilean, gehienak bezala.

Ezinean, eztarria arrakalaturik.

Hitz eta pitz ari ziren beste batzuk, bizitzak erabili beharreko berba kopurua aldean ekarriko balu bezala.

Beteranoak ohatzetan zeutzan indarge -denborak ez du han dominarik banatzen-, laster aterako ziren seinale.

Nora, baina?

Garazik Vila-Matas delako bat ekarri zuen akordura: «*¿También en el paraíso existirá la muerte?*».

LARUNBATA

Coruñarako errepide alboan paratu naiz, hartaritzen den nornahiren zain. Euri txikia ari du gaur ere. Egunsentian ez dut Xenaro asmatu, lozorroan omen dago oraindino. Itzartu orduko atzoko biharamuna nagusituko zaio, niri bezalatsu. Unaturik eta buruko mina nuela esnatu naiz, Arimateako Josek harritzarra ezarri balit bezala, Albariñoak gurutziltzatu gaitu. Ez dut pentsatu gura zelan gelditu den literatura irakasle metale-roa, puskaturik behar ditu gitarra elektrikoaren soka guztiak. Zorionez, Aste Santua badoa.

Luze itxaron gabe, herrikoa egokitu zait.

- Nora?

- Coruñara.

- Ordu erdira utziko haut.

Tiburoi frantses berdean, Vicente Porras, tabernan Celtakoak larrutu zituen Kaifas ozpina. Ile xerlo beltz batzuk kopeta gainera etorri zaizkio buruaz baiezko keinua egin didanean. Esertzeko astirik eman gabe, Rivasi buruz hasi zait. Badirudi agindupean daudela denak herri honetan.

Galdetzeko moduagatik sinetsita dago idazle galegoaren aitorlea naizela. Ze Rivasen adiskidea izatea eta haren ipuinak buruz jakitea normalena baita. Pixka batean itxoiteko erregutu diot, autora sartu orduko atzokoaz jardutea baita legezkoa niretzat. Okerrenean Celtako astapotroz ere badut gurago, ezuste bat baino gehiago eman diezaioket futbolaz. Tamalez, ez dit ulertu, Carlos Mejia Godoy y los de Palacagüinaren zinta bat jarri du irrati-kasetean.

Carmiña da bere ipuina.

- Aukeratuen artean hago -neure artean.

Hura ere hiru edo lau bider irakurri nuen Gerena ospitalean zegoen bitartean eta hil ondoren. Ipuineko zakurrak, Tarzan, Mount-en akordua ekartzen zidan behin eta berriro, neuk akabatu banu bezala tabernako zakurra: *zaunka egin zuen, bare, mesfidati, makila aho parean ipini nion arte. Orduantxe zabaldu zuen eta ez-patak sartzen diren moduan sartu nion, barruraino. Eztenak lepo-eztarria zarrastatu eta erraien biguntasuna zulatu nuen.*

Herri handi samar baterainoko tartean jardun du Vicentek. Gizon hau den kontalari aritu eta

trebea bezain jokalaria iaio eta arinak balira Vigo-ko zeltarrak, gaitzerdi! Adar eta abar narratu du ipuina, paragraforik ahaztu gabe. Zumardi batera ailegatzean segurtatu dit Galiziako herri guztietan bizi dela Carmiña. Sestaoko azal beltzaraneko andrazko tentagarria. Dei egin dit berriz ere horma zikinak, ipuina irakurtzean deitzen zidan ahots bertsuaz. Burutik kendu ezinean, gaiaz beste egiten ahalegindu naiz.

- Eta noski *Que vida...* hitzek hiri ezer ez, ezta?

- Ez, neuk ere bilatu beharko nitek -erabaki du gidariak-. Baina sarri urrundu egiten gaituk begien aurrean duguna topatzeko. Beharrik gabe. Auskalo.

Musikagatik ez balitz, gizon atsegina ere irudituko litzaidake.

- Eta hi nora hoa, Vicente?

- Lombaseko Santa Martara! Joan bai, baina etorriko ez zara!

Herriko andrazko batekin egin dut Coruñarako bidaia. Kontatu dit Txinan ere badagoela Finiste-

re. Misiolari joan zen behinola bere aitona bat. Han-hemen sosak ematen zizkien nekazariei semeak Finisterre izenaz bataiatzeko. Serio aritu zait. Larunbatean Madriler a beheratuko da bederatzi lagunekin Continental enpresaren autobusean.

- Kabareta ikusten, Antzoki Nazionalean.

Bueltakoan beren senarrak larrutuko dituzte Vicentek Celtakoak larrutzen dituen moduan.

Liburu-denda batera joan naiz artez. Gerena-ren esaldia osatu arte, asmatu behar dut zer gertatzen den Xenaroren herrian. Dauzkaten ipuin liburu guztiak erosi ditut, *As chamadas perdidas* eta *¿Que me quieres, amor?* barne. Ondoren, porturatu egin naiz ibili lasaian.

Herculesen magalean lotu naiz Anxelarekin, herrian bizi ez den herritar bakarra. Badut aurretik ordu pare bat. Kontserba enpresen artetik galtza labur samalda dabil zer harrapa. Zamaontziak isil-gordean iragan dira kanaletik arrantza-le zaharren begiradapean. Ez da luze izardun bandera batek ihartu zituela amarralekuetan. Ostadarrak ur azala zikindu du *Black Prince* itsasontziko uhara sigi-saga hasi orduko, burdinazko

bihurtu dira kurriloak moiletan, zilarrezko lazunak barraderan, eta Carmen elizako arkupeetan gezatu egin da *Salve Marinera*. Umeek arrain txikiak dituzte helburu, ze adina banderarik gabeko multinazionala baita. Arrantzaleek txikota botako ligukete heldu berrioi baina beranduegi da. Lehorreko haizeak galipotez galegotu ditu Komandantziako bagoiak jaioberriaren mekonioaren antzo. Eroستا dator fuel-olioa O Rostro plaiatik, tantaka erostak karga-tren batera hiltzera inor errukitu barik. Zeru-goietan zurizko arrakala dago, gasolio sunda dario Salbeari.

Galicia Hoxe kazeta besapean duelarik azaldu da Anxela. Hitzen beharrik ez duen erretratu argigarri batek janzten du lehen orria. Behin eta berriro hiltzen nauten berri-agentzietako argazki horietako bat. Irudiak badira albiste eta albistek erraz bilakatzen dira irudi. Osaba Ignacio gomutatu zait. Leica kamara aldean, European barna ibili zen jakiteko nolakoak ziren beste europarrak, eta Europako mugetatik harago ere heldu zen, Petrogradoraino, baina hura garai hartan Europa zen. Ze orain Berlingo argamasarekin eraikitzen baita hura.

Egunkaria ez da oihuka ari zaidan bakarra. Anxelaren kotoizko kamixeta beltzak ere gainditu gura ditu mugak, *Nunca Mais de Catalunya*. Lolo akordatu zait berehala.

- Nunca mais, pero luego les votáis.

Baina hura araua da, Galeusca behinik behin, galegook ez dira inondik ere salbuespena. Haize berri idorraren bafadek mugarriak bota eta harrisiak altxatu ditu. Gaur, ostera, itsasotik dator haizea, harrizko Hercules hau bezain sendo sentiarazten nau.

Luze paseatu ondoren, taberna batera sartu gara. *Cruzeiro* izenekora zabaltzen da Anxelaren portua. Golpes Bajos taldearen kartel batek agintzen du.

Pakotene zen Garazi eta biona. Haren berbak, malekoia.

- Zaratotsa lekutara badoa, taska honetan badaukak kaxa bat oihartzun -agindu zidan. *Pakotenen* kresala beti. Lur-zoruan zerrautsa, kartelik ez-. Zerua belzten bada, taska honetan badaukak kaxa bat ekaitz.

Eta badakar, haize galego hau ez dabil bromatan. Enbata da. Finisterreko labar zorrotzeta-

tik iparreratzen da bizarra mozteko xaflak bezalatsu. Abaroan gaude taberna honetan.

Herrira zertan joan naizen azaldu diot lehenik eta behin. Herrikoekin gertatu den bezala, ez du *Que vida...* esaldiaren aditurik. Ez nuen besterik espero. Ahalegindu egin da, dena den. Hausnarreran ibili da une batez, berbak, herria eta irudi mordo hiruangelu batean lotzen.

- Dartsena hutsik badago, taska honetan badaukak kaxa bat xiringa -Garazik.

Ohartu baino lehen bere ipuina kontatzen hasi da. Anxela hiritarturik dago zeharo, narrazioa ate karrankariaren antzo. Coruñan giroturik egoteak salbatzen du.

Amaitzean konturatu naiz Garazik ere konta lezakeela ipuin beraren bertsio bat.

- Liverpoolera Rotterdamera Belfastera baho, taska honetan badaukak kaxa bat Sestao.

Sestao ez eze, Catania guztiak ere behar nituen. Zegoeneko Garazi ez zegoen nire kaletegian. Andrazko siziliar ederrak soilik ikusten nituen kale meharretan; saltzaile berriketariak ez-pata arrainei arrenka aritzen zitzaizkien merka-

tuetan; zilarra ostu gurazidaten asmo gazietan; ikaritzen ninduten gaueko ibilera susmagarrietan. Idatziko ez nuen postala erosi nion. Eta berandu baino lehen karriketan barna galdu nintzen. Plazek gaueko soineko dotoreak jantzi zituzten. Ze Catanian plazak kameleoiak baitira. Igel itxurako zerbitzariak ekarritako Krug Grande Cuvée botila hotelean neukan zain, ehiza sari.

Edozein Cataniaren beharrean nengoen.

Sestao banuen.

- Baina inoratzeko premia sentitzen baduk...

Poema papereratu eta *Pakotenera* bidali banu... Ahaztuta nengoen amaierarekin.

Cataniaz geroztik are gehiago artesitu ginen.

Plano bertsuko lerro bi etengabeko borrokan arituko balira bezala, elkar ukitu barik, Anxelak ere badu poemarik:

Cruzeiro honetan ez dute bertoko inor maki-latu.

Bertoko.

Zokoetan franko dira negar-zotinak, barreak dira bazter.

Barrea ez da kanpoko.

Hondartza honetan ez da itorik lehorreratu bertoko.

Argibako faroak ditut ezagun, gaur ere bada-
go desenbarko.

Atzipetua ez da umemoko.

Horma honetan ez diete arrotzei behatzen bertoko

Kaleak largabistaz jantzi zaizkigu, zuritu alda-
mioetako lohia.

Koloretua ez da barroko.

Finisterre honetan haizeteak ez du txaluparik hondatzen bertoko.

Gibelean dugu afrontua, nora gabeak zapiak.
Iparrekoa ez da siroko

Bidaia honetan ez dago herraturik bertoko.

Portu eske dabilenarentzat urruntzea dakar
posturak.

Iruzurra ez da azpijoko

Barru honetan ez gaitu euriak bustitzen ber-
toko.

Listuz kargatzen dute, erruz, mingain gabe-
tua.

Melatua ez da debozioko.

Epai honetan ez da bilaurik hormara eroan bertoko.

Ustea egia ustela dela naiz aiher, zer esan. Gezurra ez da osoko.

Erloju honetan ez da hondar-alerik okerka jausi bertoko.

Tantaka dator fuel-olioa plaiara, miaka, dardarka.

Ordularia ez da geroko.

Erbeste honek ez du bertoko negar-zotirik merezi.

Bertoko.

Bazterretan naute makilakatu, kanpo zokoratu beharko.

Kanpora ez dut gogoko.

Eta badu ezusterik ere.

Ibaiko harriari goroldioa nola, hala itsatsi zaie fardela herrikide guztiei. Xenaro Ourensera joan zen udal musika-eskolaren atezain; Vicente Porrsek karburante usaina arnastu zuen Madrilgo zulo batean; Herminio Noval atunetan baino kantetan abiatu zen Cabo Verderra; Manuel Besteirok matea eta aldakarik gabeko emaztea ekarri zi-

tuen Rosariotik; Isidora Varelak Pazo do Venton jardun zuen neskame, Luger batez bere buruaz beste egin zuen jaun itsu baten agindupean; Juan Pedreira Espainian barna ibili zen, Puertollanotik Agramontera, Hermosilla de Burevatik Lierganesera, herririk herri, *Entre cazuelas de barro* aldizkarirako harpidetzak lortzen; Bento Figueira merkante batean sukaldari engaiatu zen Sueze-ko kanala zeharkatzeko; Xose Zorellek zapatak eta gizonentzako trajeak saldu zituen Barcelonako Corte Inglesean; eta Rosalia de Bucer, Galiñeiroko zubiko atsoa, San Pedrotik San Juanera desagertu zen urte batean, nora alde egin zuen inork ez dakien arren.

Palmondorik gabeko indianoak.

- Eta hi heu, jakina.

- Hala duk, neu ere bai.

- Hori dun hori bizimodu mugitua!

- *Que vida...!*

Barre egin dugu gogotik. Golpes-ek *A Santa Compañía* dakar, haizeak lehen euri kolpeak. Gure mahai ondoko leihotik Jabo Irureta bistartu dugu, pausoa azkartzen duelarik.

Luzegabe itzuliko da hori ere.

EUSKALDUNAKO GALIPOTA

Purgatorioa-4

*En el purgatorio soplaban un nordés horripilante.
Aquello es un brezal desarbolado, dio Rivasek.*

Merezi zuen Gerenak zangoa galtzea manifestazio batean. Diabetesak eroan zion, ordea. Eta salbatuko zuen baldin eta, urte batzuk lehenago, River bigarren mailara igo izan balitz.

Baina ez zen igo.

Barakaldok jipoitu zuen azken partidari. Kain Abelen zelaian. Altzairugileek ametsa lapurtu zieten ontzigileei Arenasen mesedetan. Errana zigun Gerenak Bizkaiko Zubia, Colgantea, ez zela zubi, burdinazko hesia baizik. Sarobek bata besteari atzetik zenbatu zituen baloiak ate barruan. Hormak Gruyère gazta irudi.

- Aukera guztiak kareletik behera. Oilo bustiak, ez beste! -gogorarazi zion Gastonek amaitu eta berehala.

El bar de Aureliora bildu ziren zenbaitzuk, Postaria ez zetorrela segurtatu eta gero. Zirudieenez, goitizena ez zion soilik egunkariari zor, zelataria zelakoan zeuden denak. Gainera, pozarren egongo ziren bere nagusi zimurrak.

Itxi egin zuten taberna. Paretetako undina lerdenez, begirunez, tentatzeari utzi zioten Mari-txuk gu kanporatzeko exijitu baino lehenago. Bil-dutako gehienek bat egin zuten, alferrikakoak izan ziren Gerenaren kexak. Azkenean sukaldera bidali gintuzten. Bazkariaren hondarrak elkarren gainean metatzen ziren Pinillos enpresak Abandoibarran utzitako kontainerrak balira bezala. Eguneko menua ematen zuten, merke, *aukeran merkeena, La Naval-eko beharginek bakarrik bazkaltzen dute hemen*. Kako batzuetatik, burruntzali handiak eta pisu gutxiko lapikoak zintzilik. Haien gainean, Bizkaiko Aurrezki Kutxak babestutako posterra, sinaturik: *Para el bar Iru de su amigo Jesus Loroño*. Eta ondoan karabatu ulergaitza. Ziklistaren berri ere bagenuen, Gere-

nari esker. Eta irudi zuen ona zen guztia geuk dastatu aurretik fortunatu behar zela beti. Zeren ez Mortirolok ez Alpe d'Huezek ere ez zuten Loroño bezalako karrerista euskaldunik berriz ere ikusiko. Dudarik ez zuen Gerenak.

Sukaldera zigortzea hitzarmenaren eszenifikazio hutsa izan zen. Oihuak Boliren erreguak Gerenaren danbadak isiltzeko aginduak arrantzak Aurelioren balakak Maritxuren balakak argi iristen zitzaizkigun. Ate zirrikitutik, Mamenen bisaia goibela, Andres Barandika Erretuertoko muskerren soslaia eta Boliren joan-etorri urduriak ikuskatzea ere bagenuen.

- Bihar, berandu gabe, ikasiko du Amuchastegui nolakoa den Riverren aurrealdea!

Amuchasteguitarrak lehenetarikoak izan ziren Bizkaian deslektzearen bidetik ibiltzen: ezker aldean ontziola eta eskuinaldean jauregia.

Eta bulego bat Stockholmen.

Eurentzat ere Abrako zubi burdinazkoa udaberriko osterak dotoretzera baino ez zetorren, Kantauriko paristarrak ziren.

Felipe de Amuchastegui, gainera, Arenas taldearen presidentea ere bazen.

- Eta bide batez sasikume horien egoitza sozialari su emango diogu.

Bat-batean Gerenaren hanka ortopedikoa aditu genuen Goikoren zartako baten moduan, Betisi sartutako gol hura. Ohi bezala, bateko eta besteko aferak nahasten ari ziren.

- Ez! Ekintzok, hotzean!

- Zer esan nahi duk? -erronka jo zion behargin bulartsu batek. Koldobika Rastrojo zen, Riverko bazkide berria erakutsi beharrean zebilen.

Gerena ez zen asaldatu. Baina erabaki bat hartu behar zuten behingoz.

Behin eta berriro jokoz kanpo geratzea bezain umiliagarria iruditu zitzaion bozketaren emaitza. Maritxu bera ere, denetan zentzuzkoena, bazeukan kontra.

Mamenen begi unatuak narrasean zebiltzan zoruko harlauza zuri-beltzetan barna, xake peoiak balira bezala. Inoiz edo behin Gerenari adostasuna adierazteko dantzarazten zituen, hitzik ahoratu gabe. Geu ere bagentzen bat. Aferak ez nahastearen ondorio garbia zen, azken

batean, partida hura ez zen berdegunean jokatzen. Itxaron beharra zegoen.

Gerena gizalegez onartu zuen. Biharamunean lotuko ziren zeuden toki berean.

Gerena atxilotu zuten gauean Garazi eta biok Begoñako igogailuen ondoko landetan etzan ginen.

Hilabete berantago.

Uztailean.

Zegoeneko ahaztuta geunden Munduko Txapelketa, Irlanda, *El Bar de Aurelioko* hormak bez-titzen zituzten andrazko eta Jesus Loroñoren igorerarekin. Kasete bat eta zinta batzuk eramán nituen. Niri Supertramp gustatzen zitzaidan eta Garaziri Eskorbuto. Ella Fitzgerald ipini genuen. Lolo gure bila ibiliko zen Etxebarriako fabrika abandonatuaren inguruan. Baina han zaindarien dobermanak eta txatarretan joandako ijitoak bakarrik topatuko zituen, Etxebarria eurak ere. Ezin burutik kendu, ordea, River. Boliren taldeari kantariaren orkestraren trebezia ez ezik, ausardia ere falta zitzaion. Hamaika Duke Elling-

ton, orain zoro orain zentzudun. Sestaok iraungo bazuen, nahitaezkoa zen swing armoniatsua. Beste zerbait hurrengo denboraldiari begira.

Itsasadarrak eta zubiak bat egiten zuten lekura begira geunden. Ilargi beteak La Najako tren geltokia zeukan bahituta, eta ohartu gabe gure gorputz azpiko belar horixka ere bahitu zuen.

Marrubi zaporea zuen Garazik.

Hurrengo egunean aita garrasika sartu zen gelara. Bere senetik erabat aterata zegoen.

- Ez haut berriro ikusi gura Iñaki Gerenarekin, aditu duk? Inoiz ere ez!

Baina edo antzekorik xuxurlatzeko betarik gabe, eskuin masaila berotu zidan, Siemens labea bere esku ahurra. Lolok kristauarena egin zuen, ezkerrekoan eman zion haren amak zaplaztekoa. Garazi, aldiz, libratu egin zen. Gureak ez bezalakoak, gorriak ziren haren gurasoak.

Hala ere, komunismoak ez zion debekua barkatu.

Gerena hilda zegoen.

- Aditu duzue?

Nekez konprenitu, ordea.

El bar de Aurelio tabernan aferak nahastu nola, hala endredatu zitzaizkidan kontuak. Garazik musukatu eta hurrengo egunean, umezaroaren gulagetara erbesteratu nahi ninduten berriro.

Bezperako landetan lotu ginen hirurok. Lur sakratuaren bortxatzea iritzi nion, baina Garazi temoso jarri zitzaidan. Amore eman eta berandu samar ailegatu nintzen ordu batzuk lehenago itsasadarra niganatu nuen tokira. Zitroina usaindu nuen marrubia egondako tokian. Lolok gorri zeukan oraindik masaila. Barre egin nion Garaziren zakur begiek mehatxatu arte.

- Eta atzo?

Gauetz nora demonio sartu ginen. Etxebarriako piztia beltzak irten zitzaizkion eta zelan edo halan ihes egitea lortu zuen.

- Eta ijitorik...?

Garazi zaunkaka hasi zen berriro, informazioaren beharrean geunden.

Nik banuen ideia bat edo beste. Gertatutakok zerikusirik behar zuen Amuchasteguitarrekin

ezinbestean. Hilabete geroago jazo arren. Lolok *Egin* erosi zuen zer edo zer ekarriko zuelakoan, baina Gerena atzeman zutenerako itxita zeuden edizio guztiak. Erantzunik gabeko hamaika galdera genituen: nondik nora atzitu zuten; Amuchasteguitarrei lotuta zegoen; bakarrik zebilen preso hartzeko unean...

Azkena Garazik argitu zigun. Gerenarekin batera, Boli, Andres Barandika eta bikietako bat ere jausi ziren. Besterik ez zekien. Bere ustez, Mamenengana jo behar genuen lehenik eta behin. Nola ez zekien, ordea. Non bizi zen edo non zebilen beharrean ere ez genekien. Orduantxe ohartu ginen guztiz ezezaguna zela guretzat.

- Oena, beraz, *El bar de Aureliora* bueltatzea.

Lolok eta biok baiezkoa egin genuen buruaz, elkarri ikaratan begiratzen geniola.

- Nik gaur ez dinat joaterik- desenkusatu zen hura.

- Eta neuk ere ez- nik segidan.

Garazik ez zigun hurrengo egunera arte uler-tu.

- Mamen ez duk Carmen.

Garbiago berba egiteko agindu genion Gara-
ziri. Gero eta Gerenaren antz handiagoa hartzen
ari zen.

- Mamen ez duk Carmen. Eta are gutxiago
Europa.

- Eta nola deitzen da, ba?

- Bada hori duk onena. Inork ez zakik zelan
deitzen den, baina ez duk Mamen.

El bar de Aureliora biltzen zirenak ziren inor
hura.

Harrotuak baina nahastuak.

Izutuak.

Garazi, guri itxoiteaz gogaiturik, bere kasa
joan zen. Hainbat altzari falta zitzaizkion taber-
nari. Andrazkorik ere ez zegoen hormetan apain-
garri. *Txakurrek kendu zituzten erregistroan*. Be-
tiko lizentziatu izanaren itxura erakusten zuen
tabernak. Isiltasun beldurgarria. Mount ere zeha-
ro bestelakoturik zebilen zorioneko atxiloketatik.
Zorionez, sukaldeko ziklistak Urkiolan gaindi zi-
rauen, ezabaezin.

Maritxuk azaldu zizkion gainerakoak. Gaston *postari* susmagarria ez zen salataria.

- Orduan?

Bat-bateko aldegitea baino froga garbiagorik ez ei zegoen.

- Nork ikusi du emakume hori Gerena eta enparauak komisaldegiratu ostean?

Garazi sinetsi ezinik zegoen.

Geu ere berdin.

- Eta orain zer? -desafio egin zigun.

- Orain?

Ez genekien Kordoba Espainiako mapa politikoan ipintzen.

Garazik, berriz, oso besterik ikusten zuen afera eta lantzean-lantzean gutunak bidaltzen zituen kartzelara. Geuk ere bidaliko genituen, noski, baina ez genekien zer idatzi. Hura zen, azken batean, mahaiak eskatzen zuen laugarren hanka.

San Mateo.

Ordurako marrubi zaporea zuen atzera ere. Marrubia arratsero igogailu ondoko belardian.

Halakoetan Lolok segurtatzen zигun nahiago zituela Gernikako piperrak eta bere amaren tortilla, eta ordubete inguru ematen zигun afaltzetik itzuli baino lehenago. Garaziri denboraren erdia joaten zitzaion Kojakak zurrupatzen.

Ama Birjina egunaren bezpera sargoritsuan Loloren inbidia ez ezik, lotura ugari ere bazeuden kiskalita. Garazi pintura pote batekin agertu zen hamarretan. Beltza. Igogailuko hesiaren hormigoizko hormak hozten hasiak ziren. Bazetozen fededunak Begoñara. Berehala ulertu genuen: *Gerena askatu! Presoak kalera!* Oker genbiltzan. Aldarri batez apaindu beharrean, jauregi moduko bat marraztu zuen.

- Meskita batean zagok preso Gerena.

Mutilok han Alhambra zegoelakoan.

Hortik aurrera nonahi ugaritu ziren meskitak. IZAREN ere bai.

- Pandotarrak falta zaizkiguk, osterera.

Gerena antza hartzea gutxiegi zen ordurako, kameleoi genuen laguna. Segituan azaldu zигun. *A. Maria de Pando* eta *M. Luisa de Pando*-ren kroskoei eraso egin behar genien. Aldamioak kendu baino lehen.

- Hiri burutik joan zain erabat. Nirekin ez kon-
tatu! -haserretu zen Lolo.

- Nirekin ere ez.

Geren ez zegoen hilda, tokitan baizik.

Kasik xuxurlatu nion.

- Guadalquivir ez dun Ibaizabal.

*«Itsasadarra barik, ibaia dinagu hemen. Baina ez dun horren diferentea. Minerala ere bazagon! Kar kar kar. Eta ez gauden Titanic baten behar-
rean, ez horixe. Oker zebilenan Mountbatten
pospolo itxurako kabroi hura. Jakin dinat ibili zela
itsasontzi hartan, berriz, euskaldun bidaiari bat:
Ramon Artagaveytia. Amuchastegitarra nonbait,
baina klaseak ez omen zinan heriotzatik libratu.
Azken hau ez zakinat, baina ez luken harritze-
koa. Europa ez dun inoiz izan sinetsarazi diguten
bezain zabal eta laua. Baina, badaezpada ere,
izozturik ito zen ikertzeko eskatu gura dinat...»*

Kartzelara sartuz geroztik, Garazi ibili zen al-
biste emaille. Hasieran ez zuen gure jarrera uler-
tzen, hain lotsagarria, hain koldarra, *horren ze-
kena!*, baina handik urtebetera ohitu eta, esango

nuke nik, disfrutatzen ere ikasi zuen bere paper berrian. Amezaga zein *Kresala* jubilaturik eta Gerena kaleraturik, mahaia eutsi beharreko hanka bilakatu zen, zertan eta gutun trukaketan. Hari esker jakin genuen Lord Mountbattenekin batera 14 urteko biloba eta 15 urteko ontzi-mutil bat ere hil zirela leherketan eta, Ingalaterrako Erreginaren lehengusua zenez, Westminsterko Abadian lurperatu zutela.

- Ramon Artagabeitia!

Ez zen hondalean betiko galdu, Gerenaren eta Garaziren gutunek zigilu bera zeramaten.

«Boli Riverren ez dagoenetik taldea hobeto omen dabil. Kasualitatea den ez dakit. Tira, Gastoni irakurri diot, 'un equipo que ha pasado por el desguace' idatzi du, nabari zaio ez zuela hura estimu handian. Gu geu ez gara oraindik ikustera joan. Mutilak lanpeturik dabilta, badakizu.»

Eta hala zen.

Zeren eta handik hilabete batzuetara, Marítima Antares-en *pandoak* kimika produktuak garraiatzen ari ziren bitartean, Athletic itsasadarrean gora aupatu zen gabarra batean.

Gure siderurgia eta metalurgiari esker.

- Alabin, alaban, alabin bon ban, Athletic, Athletic, geuria!

- All iron -tematu zen Garazi-. Denak!
Alferrik.

Zelan akordatu egoera horretan Riverrekin?

IGANDEA

Taskaratu baino lehen omenaldi xumea egin diogu Helena Ferrini. Bart zendu da oilategian, oilo bat, buruan galtzerdi zulatua ipinita, lepamoztu ondoren. Animalia buru gabeturik hara eta hona itsumustuan zebilela, bihotzekoak eman omen dio emakume zaharrari. Mehatxu garbia herriari.

Haren ipuinaz galdegin diot Xenarori.

Baina ez daki.

- Herminio Novalek, agian. Entzule ona duk.

Eta koblakari eskasa, kantetan harrapatu dugu tabernan:

Euria motz

Berba hotz

Atariko eskailerapekoan

Egiten dizut kosk

Atariko eskailerapekoan

Ostu didazu erlojua

Atariko eskailerapekoan

Ostu didazu erlojua
Denborari ipini diogu
Maitearen torlojua.

Horrenbeste zabaltzen du ahoa, ezen Mike Tysonen ukabil makurra ere galduko litzaiokeen karies espantagarrien artetik. Eta zabaltzen duen aldiro aho-kiratsa dario.

Euri azido lez.

Euria berri
Berba aterri
Ibaian behera jakin dugu
Gurea ez dela otserri

Ibaian behera jakin dugu
Heldu berrien miseria
Ibaian behera jakin dugu
Heldu berrien miseria
Zauri sartzen dira kaioak
Joko bakarreko komeria

Bazter batean Xose Zorelle dago, haitzetan habia duen sai arrearen antzera. Esertzeko gon-

bidatu nau berehala, eta Anis de Paris edateko, Bastille erretzeko gai den bakarra. Anis iraultzaila da.

- *O inmenso camposanto da Habana* kontatuko diat.

Rivasen ipuinetatik gehien gustatzen zaidana da, Robespierrearen bolbora guztia baino gehiago beharko du gogobetetzeko. Purgatorioaren gaineko esaldi hori: *Aquello es un brezal desarbollado*. Amarok kontatzen zuen hura guztia, hil aurretik gutxienez zortzi bider hil zen osaba. Aditua zen hiltzen, sano duin hiltzen zen. Eta heriotzatik bueltatzen zen beti La Toja xaboiaren lurrinaz, Mallo Orkestraren akordeoi-jotzailearen moduan orrazturik, Galesko Printzea trajea soinean eta ipuin harrigarri bat maletan. Eta behin baieztatu zuen Zeruko Oturuntzan lakoi galegoa dastatu zuela.

Gogoia ipuina joan arren, portua erakutsi dit berehalakoan kantak. Belak zabal-zabal hedaturik daramatzen ontzia da Herminio Noval. Botako duen haizeterik ez dago.

Berba ordain
Hor zarela horra naizela
Elkar asetzeko lain

Hor zarela horra naizela
Karrika hau dut mundua
Hor zarela horra naizela
Karrika hau dut mundua
Marinelak ikusarazi dit
Jo duela kukuak.

Mundua du karrika Xose Zorellek, ordea. Ipui-
na aletzeari ekin dio kukuari entzun baino lehe-
nago.

Amaitu duenerako zer kontatu duen ez dakit,
baina antzik ez du Rivasenarekin. Hilobiz hilobi,
urrunera eraman du kontakizunaren kanposan-
tua.

- Habana esan gura duk... -zuzendu diot.
- Cienfuegos, arraioa!

Temati ipini zait eta onartu egin diot toki al-
daketa. Baina berdin gertatu da beste guztiare-
kin. Ez da rosanovarik agertu, ez zinkezko ontzi-
rik, ez Orzan kaleko tabernarik, ez ardo-edalon-

tzi zenbakiturik. Eta ez du esan *una calle tan marinera que el océano subía a veces por el ojo del retrete*.

Edariak gainez egin du Xose Zorelleren zainetan, anisez ezituriko Mekong haserretua. Ez diot kasurik egin. Hausteko eskubidea badu.

Tabernariak gabetu dit, ordea.

- Hi haiz hi, Xose! Joan den astean ipuinaren osaba aitona zuan eta Cienfuegosen beharrean, Cochabamban hiltzen zuan. Behingoz erabaki ezak!

- Hik esan behar al didak zelan kontatu ipuina? Arrantzan ibiltzen haiz-eta gainerakoonetan heurea dotoretzeko!

- Eta, hala ere, sarea hutsik! -trufa egin dio Herminio Novalek.

Eta, auzia erabaki nahian, kantatzeari ekin dio atzera ere.

Euria ugari

Berba ernari

Zeri gabetuen bisaira

Zimurrak opari

Zeru gabetuen bisaira
Aldatu dut buzoia
Zeru gabetuen bisaira
Aldatu dut buzoia
Espaloi ezagunetan pilatzen da
Ekaitz osteko lohia

Euria aiduru
Berba lanturu
Norakorik ez duen kalea
Dago itzalez mukuru

Norakorik ez duen kalea
Ez harlauza ez arau
Norakorik ez duen kalea
Ez harlauza ez arau
Maparik gabe bertaratzen direnak
Bihurtzen dituzte bilau

Ez harlauzarik ez araurik irten naiz kanpora,
Xenaro barruan utzita, igande luze honek nora-
korik ekarriko ote didan; Herminio Novalen ha-
tsak zigortu nahi ote nauen. Maparik gabe berta-
ratu bainaiz azken batean, *Que vida...* honek

ziria sartu dit. Hau bizitzaka edo hau bizimoduka arituko zaizkit honezkero literaturaren etorkin hauek guztiak.

Helmuga zehatzik gabe joan naiz narrasean, harik eta Aurora Barreiros venus mardula topatu arte. Erromes baten lez hurreratu natzaio, eskean jardun dut ailegatu nintzenetik. Oraindino ez dut paradarik aurkitu Xoserren emaztearekin berba egiteko. Labanda usaina dario. Senarra tabernan kontu-kontari ibiltzeak bakea dakarkio, nabari zaio. Kontaketan hura bezain aldrebesa ez izatea desiratu dut. Haren itxura nire alde, duda barik. Aurreiritziaren bizkarrezurrean ipini dut konfiantza osoa. Ez nau, ez, hiririk hiri eramango, Habanatik Cienfuegosera, Cienfuegostik Cochabambara, Cochabambatik auskalo nora.

- Dublinera ailegatu zen Tino Veiga 1961ean... -hasi da azaltzen nik ahoa zabaldu aurretik.

Okertu naizela iruditu zait une batez. Dublin? Manuel Rivas etorri zait burura berehala. Zer dela eta aukeratu zituen idazleak bertoko kristauak? Zer ikusi zuen herrixka honetan *A lingua*

das bolboretas sortzeko? Isilean utzi diot segitzen.

- Arteixon jaioa Veiga...
- Arsenio Iglesias bezala orduan.
- Lehengusua, dirudienez.
- Badu Rivasek hari eskainitako ipuin bat.
- Bai...

Labanda ozpin bilakatu zaio, ez dit bide horretatik laga nahi. Ulergarria bada, noski, ez da komeni nahastea.

Dublinen ostean, beste hiri eta herri batzuk etorri dira, panpina errusiarren moduan. Tokirik toki, noiz trenez, noiz autoz, noiz oinez. Veigaren helmuga, ttipiena, berrehun lagun inguruko lurmutur protestantea, izena ez dut akorduan. Etxeak, haize kontra, labar batean aterpeturik. Aldian-aldian itsasaldiak harritzarrak katapultatzen ditu lapatzetik arrantzaleen etxeetara. Tino Veiga egunero jaisten da harrietara. Berak kostata mugitu ahal dituen arroka biribilak botatzen dituzte barrura olatuek. Lastoa lez. Zigorra da, badira berrehun urte Liam O'Grady arrantzale katolikoak burla egin ziola itsasoari. Oraindik azaltzen da galernetan, eta bueltatzen den ba-

koitzean harri batek hormaren bat zulatzen du. *Katoliko sasikumeak!* argitu diote. Veiga, berriz, agnostikoa da, hasiberri. Gaur bizar urdineko marinel zarpatsua bistaratu du malkarretan. Le-poan karramarro bat daroa tatuaturik. Naufragio bati ihes egin berri dirudi. *Lapatz hau purgatorioa duk*, aitortu dio. Harriak arrantzale hilen arimak dira, betiko noiz porturatuko zain. Kristo itsaso gainetik bezala aldendu da zahar irlandarra, Veiga sinesten hasia da.

Neuri ere Tino Veigaren moduan ez ote zaidan gertatzen ari pentsatu dut unetxo batez, Rivas marinel zirpiltsua ei da. Neu ere sinesten hasi naiz honezkero. *Aurorari aquello es un brezal desarbolado* oroitaraztekotan egon naiz, baina ausardia falta izan zait. Gainera, batek daki Xosek zer kontatu dion. Aitzinera jarraitu du Rubensen amoranteak.

Hortik aurrera gaixotu egin da Tino, egunero amiltzen da harriak zaintzen, Peter da orain, goizero marinel zarpatsua ren peskizan. Pena ematen die gehienei, protestantismoan ez dago purgatoriorik. Goiz lanbrotsu batean ikusi dute ahuspez lapatzean, ubarroi beltz bat hanketan

duelarik, hilotz itsasbeheraren bazka. Hurrengo itsasaldiaren zain.

Zurturik gelditu naiz.

- Ez nuen istorioaren berririk. Noiz kontatu dizu Rivasek? Berria da?

Ispilu baten aurrean balego bezala, nire aurpegiera bere bihurtu da.

- Ipuin hau neuk asmatutakoa da!

Ufaka eta bafadaka hasi den momentuan, ardo zuriaren ozpina sartu zait sudurretatik barruraino. Disimuluan erlojua begiratu dut, kanpandorreko ezkilak bete beharreko agindua ematear daude. Ez da itxaroten geratu, ordea. Agurtu gabe barneratu da, neroni ere protestante zikin horietako bat naiz seguruenera. Huts egin diot, ez dit Rivasen ipuina kontatuko. Beharrik ere ez. Susmoa dut Arsenio Iglesias *Arteixo-ko azeriari* eskaini diona dela. Irlandako Itsasoaren hondalean, Costa da Morten bezalatsu, ez dago purgatoriorik. Han-hemengo lapatzetan esperoan dauden harriak, bakarrik.

SINATU GABEKO KRONIKA

Purgatorioa-5

Erreguka ibiltzen ginen gurasoek txoke-autoetara eroan gintzaten.

Errekaldeko plazara.

Talkak genituen desio. Euren begiradapean. Eta hura azkena izango zela agintzen genien beti.

Azken bidaia.

Azken talka.

- Gerena ikusi behar duk -bota zidan Garazik telefonoz.

Lehor.

Erregua baino gehiago agindua iruditu zitzaidan, umiliatu gura ninduen. Nirekin zakar jokatzeke eskubidea bazuela, auskalo. Baziren hila-bete batzuk zakurraren salara bidali ninduela, ze horrela erran baitzuen, *zakurraren salara joan*

eta ez hadi inoiz bueltatu, eta orain Gerenarekin biltzeko eskatzen zidan. Eta bazekien, ondo jakin ere, ez nuela hura ikusi nahi. Hilda zegoen, gurasoek atxilotu ostean agindu bezala, bai, zentzurik metaforikoenean, baina hilda azken batean hainbeste urte joan eta gero. Zertara zetorren ikusi behar hura?

Onartu egin nuen baina, men.

- Igogailu ondoko landetan geldituko gaituk, aspaldi bezala.

Itsasadarrean, gabarra zuri-gorria draga-lanetarako balio ere ez, nonbait. Dike lehorrean zegoen izen gabetua, gainbeheraren lokatzak eta Athleticen bolada kaskarrak hondaturik, itxura batean.

Itxura batean.

Bestelako itsasontzi batzuek zuten hura baztertirik, lehenago Euskaldunan gertatu zen moduan eta La Navalen gertatzen ari zen moduan.

Eta, hala ere, eder zihoan Portugaleteko zubian behera *Bilbao Knutsen*, Sestaoko ontziola-

ren azken zerraldo laranja, 271 metroko begitazio flotagarria.

Kasualitatez ikusi nuen. Lagun baten esperotan nengoen Santurtziko moilan. Portsmouth-etiketorren, *The Pride of Bilbao* bainera distiratsuan. Arrantzaleak aurea hartzen ari zitzaizkien ontzigileei.

Bilborako bidea autoz egin nuen. La Najako geltokia eta Abandoibarrako trenbidea ere ez genuen ordurako. Nolakoak ziren gogoratzen aha-legendu nintzen. Iturriza parkearen ondotik ikusi nuen aldiriko trena, elegante. Zubi ttipi baten azpitik pasatzen zen. La Naja zelangoa zen, ezin bururatu ordea. Goiko geltokiak irensten zuen, Abandokoak, aspiradora baten lez. Alboan Guggenheim museoa eta Euskalduna jauregia, distira itsasadarrari.

Egongo ote zen ezkia?

- Deitu din?

- Ez.

- Orduan?

Orduan landetan geldituko ginela erabaki zuen, aspaldi legez, eta argi geratu ez balitzait bezala, zera gehitu zuen:

- Eta sasoiz ailega!

Kartzelaldia amaitu ostean Burdingileak berak apurtu zituen harremanak.

Garazirekin.

Besteon berririk mendrenik ez baitzeukan.

Lehen hilabeteetako gutunetan Garazi gutaz mintzatzen zitzaion huts egin gabe, nola hanka hautsi nuen eta ez ote nuen ortopedikoa eraman beharko, nola Lolo sandia zaporeko neska ilegorri batekin ibiltzen hasi zen... Baina ez zuen luze jo. Aukeran biek Guadalquivir eta Ibaizabal ibaiez jardun nahiago zuten, eta aliron berba arabieratik zetorrela argitu, eta Ramon Artaga-beitia ezizenaz sinatu; edota Ramonchu Artaga-veytiaz ere sarri. Eta gure izen-deiturak Euskaldunako lehen aurre-erretiroekin batera desagertu ziren.

Behin kalean, ordea, Gerena ez zen lehengo bera.

Naturala ere bazen, noski.

Baina kolpe latza.

Garazirentzat.

Birritan geratu zen. Batean, Bolirekin batera. Hilabete batzuk zeramatzan presondegietatik kanpo. Ugari bisitatu zuen kartzelaldian, baina famatu, Herrera de la Manchan famatu zen, hamaikakorik defentsibenaz jokatzegatik. Eta azken partida galtzegatik. Gazteria taldearen bulegoan ikusi zuten, Ezkerraldeko proiekturik xumeena. Zeretik hasi beharra zegoen.

Bestean, ordea, bakarrik; Mamen topaketara azaldu arren, modu batean edo bestean. Ezusteko galanta izan zen: Gerenarentzat, atxiloketa. Garazirentzat, telebistako esatariari entzutea *alias Europa*. Eta guretzat, etakidea izatea.

- Mamen ez duk Carmen.

Bolatoki berriaren ondoan itxoin genion.

- Egunero etortzen duk hona.

- Eta? Normala dun, igogailuan ibiltzen zunan beharrean barrura sartu baino lehen.

Gerena luze gabe agertu zen, mamu bihurturik.

Ikaragarri zurbil, mehar-meharra orratz baten lez eta burua soil.

Amildegia balkoi bilakatzen zen maldara hurbildu eta itsasadar ondoko iraganean tinkatu zuen begirada galdua. Iluntzen ari zuen. Portugaleteko kalatxori karrankariak Areatzako zaindari zebiltzan.

Garazik doi bat itxaron eta deitu egin zuen.

- Hemen naukazu, Burdingile!

Gerenak lepoa bueltatu zuen astiro, *naukazu* hark ez ninduen ikusezin bilakatzen.

Une batez, Abrarainoko bidea inoizkorik abandonatuena begitandu zitzaidan, Bilboko udaletxetik Euskalduna zubiraino mintzaldi gezurrezko zihoan, estetika berri itogarri baten menpe, Amezaga eta Kresalarekin alboratua zen eredu literarioa, burdina-pilak eta bobinak bezain finitua. Tilo batek erdibitzen zuen jauregi bihurtutako ontzitegia: ezkerrean herdoil nahia; nahi herdoildua eskuinean.

Eta berehala konprenitu nuen ez zegoela partida hartaz kronikarik idatziko zuen kazetaririk.

Purgatorioa-5

Erreguka ibiltzen ginen gurasoek txoke-autoetara eroan gintzaten.

Errekaldeko plazara.

Talkak genituen desio. Euren begiradapean. Eta hura azkena izango zela agintzen genien beti.

Azken bidaia.

Azken talka.

Onkologiako gela handia azkenekoz bisitatu genuenean, joan-etorri asko zegoen. Gerena txitean-pitean zihoan komunera gurgildun traman-kulua aldean. Autoetako kontaktu-kableen antzo.

Eta bakoitzean erraten zigun azkena zela.

Azken bidaia.

Minaren minez erregutzen hasi zenean ulertu genuen ez zegoela atzera bueltarik, mendian gora leher eginda zihoan karrerista. Ospitalera Larrialditik sartu zen bere kasa, bizkarrezurrean mina zuelarik. Medikuak sorgor begiratu zion.

Soilik egun batzuk han. Begiradapean, zer gerta ere. Eta hark Gazteria taldea buruan. Eta hark telebistan eman beharreko futbol partida kezka.

Eta handik egun batzuetara, minaren minez erregutzen hasi zitzaigunean, ulertu genuen karreristak bide bazterra joko zuela.

Eta handik beste egun batzuetara, eldarnioa. Eta Kixote etorri zitzaidan burura, marrazki bizi-dunetakoa.

Tarteka, erreguetatik irain eta laidoetara igarotzen zen. Boliren irainak Sestaoren defentsa belaxkei.

Gau batean, batek jakin ohetik zelan altxatu, korridorera irten, komunera sartu eta ur izoztuz dutxatu zen. Ura entzun eta hainbat erizain hurbildu ziren.

- Baina, Iñaki, zertan zabilta?

Dutxaren zoruan kukuturik erantzun zien:

- Mexikoko Txapelketara etorri naiz, kronikagile.

Eta orduan malko bana eskaini genion.

Eta beste bat lotu zutenean. Zakur baten lez, hobe beharrez, besoak zulaturik, ubel, more.

Bitartean..., bitartean egunkarietan eutanasi-az ari ziren.

Geroago hemorragia sortu zitzaion urdailean, eta odola ahotik zeriola hasi zen burrustan. Egun horretan eutanasi-az ere aritu ginen hirurok. Eta ezinaz. Eta adiskidetasunaz, hileta hartan bezala. Eta ea heriotzan paradisurik zegoen.

Eta egun horretan bertan, iluntzean, Lolori hots egin zioten. Alaba Larrialdietan zegoen kalentura handiak jota, 41 gradu. Eta aldi berean ustekabeko telefono-dei batek albiste onak ere ekarri zizkion. Eta ez hemorragiagatik, ez sukarragatik, bakarrik negar egin zuen berri ona lagunarekin konpartitzean. Eta ez dut gomutatzen inork hain modu bortitzean negar egin izana, ospitaleko korridorean, ohe huts batean jesarrita.

Eta Garazi bilatu nuen begiradaz, baina ordu-rako gela barruan zegoen.

Goiz oskarbi batean, begiak zeharo handiturik eta lepoan imintzio urduri bat agertzen zituela esnatu zen Gerena, Riverren argazkirantz bueltatuta.

Handik minutu batzuetara lo-zorroan sartu zen.

Eta handik bi egunetara hil zen.

Zera dio Joseba Sarrionandiak *Akordatzen* liburuan: *akorduak ez dira zehatzak, baina ahaztura ere ez da hain-hain zehatza.*

Urtebeteko gaixoaldia eta deirik ez. Bisitarik ere ez, zer esan gabe doa. Gerena zendu eta ordu erdira, berriz, doluminak Garaziri kazetari gazte batek. Telefonoz.

- Eta zelan jakin duk? Guk ez dizuegu deitu. Mutila fina da berean, ezagun du hark.

- Nagusiak eskatu zidan heuk zer edo zer esateko hari buruz. Egunkarian ipintzeko.

Gaston *El Correo*-ren kirol-zuzendari berriak gaztea du zubi, Postaria azken muturreraino. Erretratu eta guzti agertuko omen da.

- Zirkurik ez, arren, obituarioa nahikoa -eskertu dio Garazik.

Azken agurrean sugandilak dira erostari bakar, eguzkiak eutsi arte behinik behin.

Usain asko.

Ematen du beste hildako batzuek erabilia dutela lehenago hil-kutxa. Inguruan katu ezkel bat

dabil usnan, zer harrapa, zerraldoan hamabi korroko baleude bezala.

Gangrenaturik balego bezala.

Inork ez du Garaziren begiekin topo egin gura, kalaxnikovak omen dira.

Baina ez dira.

Ahaztura hain zehatza ez izatea du desio bakar.

ASTELEHENA

Pintura pitzatuko komun honetan, hil-hotzik sortzen da egunsentia Galizian. Urruneko labarren bakardade hezea abaildu da ate zirritueta-
ra. Hormak berdatzen hasiak dira dagoeneko. Eta bañerako zomorroak eta sabaiko armiarmak ditut lagun bakar. Ematen du baldosa arrakalatu-
tuek salto egingo dutela album zaharretako kro-
moen gisara giroa are gehiago izoztuz. Gaur ere
ispilua lausotu bada ere, garden ikusi dut zene-
fan izkiriaturako trakoma legezko amodioa ur-
dindu dela.

Gaur ez tik ez tok.

Hotz naiz konketara amiltzeko zorian. Ingu-
ruan oro da ximelago. Harrizko estrata malkar-
tsu baten gora igotzen naiz takoi luzeko zapataz.
Hamaika xede letra bihurtu dut, hamaika letra
xede. Eta letraz uhertu dira gerokoak. Gerokoaz
jelatu letrak. Jelaz geroratu uherrak. Lokartu
zaizkit zangoak tabernetan. Herrendu dira mo-
mentuak arineketa luzean. Bakartu naiz aldran
ibiltzean. Zangotu zaizkit noraezak. Denbora

bera ere belztu omen zait. Malkoak ezinez lehortzen ari dira, belazeei udaminean lez, urtegiei sikatean lez. Eta, hala ere, ez naiz oraindino zeharo antzutu. Badago negar-jauzi bat inork ez dakien toki batean, arrazoitu gabeko negar handiak bota behar ditugu oraindik, Atlantida itotzerainoko negar handiak. Dirudienez, bakardadea ikasi beharreko ogibidea da.

Hotz naiz.

Gaur ez tik ez tok. Hanka ortopedikorik gabeko eguna da, Xenarok beherakadari erreparatu dio nonbait. Irten aurretik Pedreiraren botilarik onena oparitu dit.

- Arabiarrek prezioak igo ahal ditiztek. Bueltarako.

Hunkitu egin naiz apur bat, trago luzea joko dut autobusera igo orduko. Bide luzea dut Bilbora ailegatu arte.

Kalean Rosalia de Bucer bistaratu dugu, kamixeta marraduna soinean lurmuturrak hari musikalez josteko prest. Tabernaria gora tabernaria behera hasi zaio Xenarori aztoraturik, zeharo ulertezin. Hil ote den, Helena Ferrin bezala, edo are okerrago, hil ote duten.

Ez bata ez bestea, zorionez.

- Rosaliak zioz lehenbailehen joan behar duala tabernara.

- Tabernara?

Baiezko keinua egin dit Olassonen musak begiak Sebagoetatik kendu gabe. Erabat galegoturik daude dagoeneko.

- Zer dela-eta?

- Ez zakik, tabernariak Rosalia ikusi dik eta mandatua agindu zioz. Hark ezin dik-eta taberna abandonatu.

Ez eta Zorelle, Noval eta Porrasek ere, zinegotziak udalbatzan behar du derrigorrez.

Badut denbora oraindik. Gainera, Porrasek berak eraman behar nau Vigoko autobus geltokira.

- Tira ba, azkena edango diagu! -oihukatu du Xenarok animatu nahian. Ez omen du ezer ezkutuaz uzteko asmorik. Estimuan nauka, seguru.

Taberna ttipia lepo dago ailegatu garenean. A Guarda, Camariñas, Malpica de Bergantiños, Ribadeo eta Viana do Boloraino heldu den hasperen batez erantzun du Xenarok, espero balu bezala. Kanposantuari hartu dio aurre bilguneak,

Aste Santua fini da. Indarberriturik ematen dute denek, badatoz licenidoak, erruz.

Celtak nahiko lukeen hamaikako sendoa paratu dute nire aurrean, Bolik gurako zuen talderik defentsiboena: Manuel Besteiro, Isidora Varela, Juan Pedreira, Herminio Noval, Xose Zorelle, Bento Figueira, Luci Estevez, Litos Toxa, Aurora Barreiros, Suso Garcia..., Rivasen ipuinetatik etorritakoak Titanic gabe. Eta une batez iruditu zait beste ipuin batzuetara sartuko direla, Aurelio, Maritxu, anaia bikiak, Barandika, Gaston, Pedrueca, Loroño, Mount eta hormetako andrazko xarmangarriekin nahas, *M. Luisa de Pando* eta *A. Maria de Pando* ontziak galegotzera, eta ondoren betiko lez herrira itzuli, palmondorik gabe.

Isilik daude. Susmo txarra hartu diot berehala, asmatu dut zer datorren. Kalezulo honek ez du irteerarik. Eta ezin diot ukorik egin, ez naiz aitzinatu.

Ez dut luze itxaron behar izan. Tabernari luzanga hurbildu zait aldean pakete bat dakarrela, derrigorrezko oparia. Konturatu naiz ez dakidala zein den bere izena. Bai, ordea, beste guztiena.

- Tori.

Bateko eta besteko begi maltzurak sumatu ditut niri so. Azkar ibili beharra daukat. Paketea liburu bat da, begien bistan dago. Rivasek kontatutako ipuinen antologia ote den bururatu zait lipar batez. Neuk ere ez dut ahoa zabaldu.

- Joan den asteazkenean iritsi zuan Bilbotik.

Ahalegindu naiz ez ulertzen, isilari eutsi diot papera kentzen hasi eta berehala. Ez du luze jo, baina. Gutunazalean, nire izen, deitura eta herriaren izenaz gain, ohar bat ere badago: *astelehenean emateko*.

- Asteazkenean Bilbotik?

Xenaro bilatu dut, urte batzuk lehenago Mari-xuren tabernako sukalde lohitik lehengusua bilatu nuen moduan. Gora dezakeen guztia goratu du kabroiak, bazekien ni heldu baino lehenago, bazekiten denek. Paketearen liburua eta nork bidali duen, berriz, ideiarik ez. Jakingura nabaritzen zaie, ez da bidaltzailearen izena inondik ere ageri.

Dar-dar ttipi batean, denek entzuteko moduan irakurri dut izenburua:

- *Las llamas perdidas...*

Harri eta zur geratu naiz. Galegoek, berriz, txaloka hartu dute, eurek oparitutakoa balitz bezala. Ezin omen zen besterik izan.

Sinetsi ezinik, liburua zabaldu dut automata baten lez. Hirugarren orrialdean eskaintza bat azaldu zait, letra polita daroa:

Garaziri: Que vida venga con zapatos de bailar. Manuel Rivas. Bilbao 6 de noviembre de 2002.

Eta orrien artean Taorminako antzokiaren postala, Catanian erositako hura, Arriaga bihurtu guran.

Eta atzealdean:

Bidaiaririk ez dagoela ikusita, igogailuaren atea itxi eta gorako botoiari sakatu dio Gerenak.

Gora doa atzera ere, goian baitaude bezeroak itxaropentsu, goian baitago burdinaren distira, eta iluntze gorrimina, eta hondoratuko ez diren baporeen uberak, eta Riverren harmailak, eta portuko zikoina ugertuen mokoak, eta aurrelarien burukadak, eta hormetako andereen keinadak, eta Areatzara ausartzen diren kalatxoriak, eta azaldu behar zaizkigunak oro, eta auskalo andana.

Eta ohartu da, gorakoan, kondenek ere igo gura dutela.

Eta zorionez, horretan igogailuak ez du antzik, ez baitago beherakorik gabe gorako biderik ametitzen duen aszensorerik.

Eta gero erlojuari erreparatu dio.

Eta fini pentsatu du, eta olagarroaren ametsetan etxeratu da.

Eta mantso gerturatu da ezkaratzeko leihora. Azken batean inoiz ez da presaka ibili. Gelak iragan-sunda du, Ankara ontziaren herdoil usaina, arroz-pastela. Pertsianaren zirrikituetatik itsas-behera eta Kaikuren trainerua ikusi ditu, eta pentsatu du eurek bakarrik dirautela aldaezin bakardade horretan.

Eta bihar parez pare zabalduko ditu leihoak.

Eta sar dadila sartu behar den usaina, dena dela.

Eta kanpora botako du ustela.

Itsasadarrera.

Abrara galtzen.

Betiko.